



ARGIA

7



EUSKAL PILOTA SELEKZIOA
**Ofizialtasunaren
aldeko tantoa**

30-35. orrialdeak

#2.901 | 2025 / 01 / 19 | 4,00 €



**Aljeriako gerrako
torturazaile
handia**

12 | JEAN-MARIE LE PEN



**La Roseiraie, 1936ko
Gerrako elbarrien
ospitalea Bidarten**

24 | HISTORIA



**'LYD' filma
Palestina utopikoarekin
amesteko**

46 | ZINEMA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #303

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



ARMAGINTZA MOLDATU GIZARTEA ERALDATZEKO

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: UNAI GAZTELUMENDI

Iritziak

- 19 | BALEREN BAKAIKOA
- 20 | NORA SALBOTX
- 21 | JOSE IGNAZIO ANSORENA
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | AINGERU EPALTZA

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

14 | ANDER ZANGITU ORBEA

Formazioz arkitektoa da Ander Zangitu bergarra. Ekonomia sozial eraldatzailearen alorrean ibili da lanean azken urteotan, Hiritik At kooperatiban dabil egun. Amets Arangurenekin egin dio elkarrizketa.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Aljerko Kasbahko sastakaia: Jean-Marie Le Penen iragan torturatzaileren frogak

Jenofa Berhokoirigoin

24 | HISTORIA | LA ROSERAIE

“Bigarren aukera bat gerraren erdian”

Mauro Saravia

30 | EUSKAL SELEKZIOA

Ofizialtasuna lortzeko bidean, zirriketua zabalik?

Jon Torner Zabala

36 | ALEX PANCHO ROBLES | HIZKUNTZA AKTIBISTA GUARANIA

“Guarania patronatua egon da, kartzelatuta, esklabotuta”

Miel A. Elustondo

46 | KULTURA

Nolakoa zatekeen sekula eraso gabeko Palestina?

Gorka Peñagarikano Goikoetxea

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:


**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
Jabetza
 Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
 Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
 Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria
 Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
 Antza S.A.L.

Administrazioa
 Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
 Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
 Olatz Korta

Azoka
 Mikel Olabide

Idazkaritza
 Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
 Asier Iturralde

Informatika
 Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012
ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoa
 komertzial@argia.eus
 komunitatea@argia.eus

Telefonoa
 943371545

Gipuzkoa
 Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:





Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan egin ez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Ekoedizioaren Institutuko bazkide da ARGIA



Ekonomia sozial eraldatzailearen sareko kide gara

Izan zitekeen

Horrelako zenbat irudi heldu zaizkigu Palestinatik?
Baina Libanokoa ere izan zitekeen.
Baita Yemengo edo Irango txokoren batekoa ere.
Hau Siriako hiriburu Damaskokoa da.
Mendebaldeko demokraziek sustatutako bonbek
paisaia berdintzen dute, baita "okerreko lekuetan"
jaiotzeko ausardia izan dutenen bizitzak ere.

LEO CORREA / AP AXIER LOPEZ





Preso, iheslari eta deportatuentzako konponbidearen alde

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Urte hasiera honetan ere Bilboko kaleak bete ditu Sare Herritarrak urtarrilaren 11n Bilbon antolatutako manifestazioan. Presoei ezartzen zaizkien salbuespeneko lege eta tratamenduekin amaitzea eskatu dute amaierako ekitaldian, eta memoria “kolektibo” bat eraikitzea “indarkeriarik ez izatea baino askoz gehiago den” bakearen alde.

Joaldunek eta pertsonaia mitologikoek ireki dute ibilbidea Autonomia katean. Atzean *Behin betiko. Bakea, Konponbidea. Elkarbizitza* lelodun pankarta eta hura sustengatzen aurpegi ezagunak, besteak beste Martxelo Otamendi kazetaria, Garazi Hach Embarek ekin-tzailea, Patxi Bisquert aktorea, Jose Luis Elkoro politikari ohia, Ane Muguruza estatu indarkeriaren biktima, Amaia Izko abokatua, edo Bego Atxa eta Joseba Azkarraga Sareko kideak. Presoen senideak ere manifestazioaren buruan izan dira, eta txalo artean egin dute bidea. Atzetik milaka eta milaka herritar. Urtero kontaketa propioa egiten duen Naiz-en arabera, 67.000 izan ziren manifestariak, iaz bildutakoen pare.

Manifestazioan izan dira, halaber, hainbat alderdi, sindikatu eta mugimendu herritarretako ordezkariak. Euskal alderdien artean, EH Bildu, EH Bai, Sortu, eta EA. Sindikatuetatik, ELA, LAB,

Autokritika eta memoria ariketa presoei baino eskatzen ez dietenen jarrera kritikatu dute, eta estatuari eskatu diote berak ere urratsak eman ditzala

ESK, STEILAS, Hiru, EHNE, CGT, CNT eta Etxalde. Nazioartetik, Junts, Omnium Cultural, ERC, CUP, BNG eta Mes Per Mallorca. Euskal eragileen artean, Bake Bidea, Bilgune Feminista, Egiari Zor, Ernai, Gure Esku eta Harrera.

SALBUESPENA AMAITU

Manifestazioa udaletxean amaitu da, eta bertan hartu dute hitza Azkarragak eta Atxak. Atxak “ospatu” egin du 2024 urtean “presoei jasan behar izan duten zentzugabekeria juridiko nagusietako bat” amaitu dela, Espainiako Estatuan dauden presoei Frantzia betetako espetxe urteak kontuan egin hartzea, baina oraindik ere salbuespen neurriekin amaitu beharra dagoela salatu du, bi salbuespen mota. “Batetik, duela 20 urte baino gehiago, euskal gizarteak egun bizi duenaz guztiz bestelako garaietan onartu zi-

ren legeek eragiten dituzten salbuespen neurriak”. Eredu horretan erronka nagusia 7/2003 Legea indargabetzea da 40 urteko espetxealdia ezarri zuena. “Bestetik, espetxeetako gestioan egunero aplikatzen direnak. Esan beharra dago ezen, gradu progresioei, espetxe baimenei eta zigorrak betetzeko beste eredu batzuei dagokienez, motibazio politikoko presoei aplikatzen zaien tratamendua diskriminatzailea dela beste preso batzuek jasotzen dutenarekin alderatuta”.

Presoentzako ez duela tratu bereziturik eskatzen azpimarratu du Sarek: “Ez dugu inolako pribilegiarik eskatzen, espetxe politika arruntaren aplikazioa baizik, salbuespenik gabe, diskriminaziorik gabe, abagune politikoaren menpe egon gabe. Gainerako presoei ezartzen zaizkien tratu eta irizpide berberak eskatzen ditugu”.

MEMORIA ETA AUTOKRITIKA

“Indarkeriarik ez izatea baino askoz gehiago den bakearen garaia da”, adierazi du Atxak, eta elkarbizitza “denon artean” eraikitzeko “eskubidea” aldarrikatu. Horretarako autokritika eta memoria ariketa “kolektiboa” aldarrikatu du, eremu horretan etxeko lanak presoei bakarrik jartzen dizkieten jarrera kritikatu du, eta estatuari eskatu dio berak ere urratsak eman ditzala.

Hori lortzea “iraganeko belaunaldiei zor diegu. Baina, batez ere, etorkizuneko belaunaldiei utzi behar diegu guk geure aurrekoengandik jaso genuena baino hobea izango den gizarte bat”, adierazi du Sarek.

“EKARRIKO DITUGU ETXERA”

Ekitaldian Lluís Llach abeslari eta ekin-tzaileak Mikel Laboaren *Txoriak txori* abestu du Gorka Knorr-en laguntzarekin gitarran, eta amaiera Ines Osinagak eman dio *Dena aldatzen da* lanarekin.

Oztopoak oztopo, baikor azaldu da Atxa: “Denon artean ekarriko ditugu etxera, erbesteratuekin eta deportatuekin batera. Aurrera goaz. Etapak betetzen goaz. Dударik gabe nahi genukeen baino motelago, baina ongi goaz”. ●



MOTZEAN

Mugikortasuna hobetzeko helburuz, autobus linea berriak daude Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Lapurdin. Halaber, zerbitzuen maiztasuna ere hobetu da, Euskal Hirigune Elkargoko Mugikortasun Sindikatuak eta RATP konpainiak elkarlanean bultzatutako egitasmoari esker.

Omenaldia egin diote Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiri, haren heriotzaren 13. urteurrenean. Urtero legez, Txillardegiren senideak, lagunak eta euskaltzaleak elkartu dira Donostian, "Eta non du Txillardegik liburutegia?" pankartaren aurrean.

"Malus bat" proiektua aurkeztu dute. Hala, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak osatzen duten Euskal Sagardoa Ipar Euskal Herrira zabaltzeko proiektua martxan da, eta Nafarroa zein Trebiñu sartzeko urratsak ematen hasi dira.

Robert Hirigoien euskaltzalea hil da (Larresoro, 1944). Herri Urrats festaren sortzaileetako bat izan zen, baita ere Lapurtarren Biltzarrarena, Kanboko ikastolarena eta Ote Lore elkartearena.

Donostiako Hontza liburu-denda mitikoaren lokala salgai jarri dute eta erreleboa hartuko duen talde bat prest agertu ezean, atea itxiko ditu.

Groenlandia eta Kanada AEBen barne eta Panamako Kanala bere kontrolpean nahi ditu Donald Trumpek. Mexikoko Golkoari izena aldatu nahi dio. Eta oharra egin du: israeldar bahituak ez badituzte berehala askatzen, "infernu" zabalduko du Ekialde Hurbilean.

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



Ate birakariak

GEDAR

Gasteizko Vithas San José klinika pribatuak mediku-zuzendari gisa fitxatu du Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu ohia, kargu publikoa utzi eta urte eta erdira.

2020ko irailetik 2024ko ekainera, Gotzone Sagardui jeltzale bilbotarra izan zen Osasun Saileko burua EAEn, eta aski kritikatuak izan ziren bere eskutik ezarritako hamaika neurri: osasun-zerbitzuen murrizketa eta horiek enpresa pribatuen bidez emateko mugimenduak, 2030 Plana deiturikoa, COVID-19aren pandemia-aren kudeaketa, eta abar.

Jaurlaritzako kargu publikoa utzi eta Euskal Herriko Unibertsitatean bere ibilbideari berrekin ostean (plaza publiko bat dauka bertan), egindako merituak probestu eta enpresa pribatura jauzi egin du Sagardui.

Honakoa ez da EAEko politikariek ate birakarien bidez enpresa-mundu pribatura salto egiten duten aurreneko aldia, nahiz eta, teoriarik, batzorde bat dagoen horrek kargu publiko bat izatearekin edo eduki izanarekin sortzen duen "bateraezintasuna" identifikatzeko. Dena den, Jaurlaritzak ez du 2023tik berri enpresa pribatuetan muturra sartzea lortu duten kargudun ohien zerrenda; weborrian eguneratu beharko litzuzke halako mugimenduak. Sagarduiaren kasuan batzorde horrek emandako ebazpena ere, noski, ez dute argitaratu.

Jon Darpon Osasun sailburu ohia, 2019an Osakidetzarako oposizioei lotutako polemika zela-eta dimisioa eman bezain pronto, Eurasia taldean eta Kerala Health aseguru pribatuetan sartu zen. Sail horren parte izandako Ibon Etxeberrriak, berriz, Osakidetza anbulantziak kudeatu izan dituen enpresa nagusian lortu zuen kargu bat, Grup La Paun hain zuzen (ezaguna da konpainia horrek nola urratu dituen langileen eskubideak eta osasun-zerbitzua bera). Administrazio sailburuorde izandako Fatima Ansotegi, Kalitateko zuzendariorde ohi Mayte Bacigalupe edo EAJko presidente izandako Josu Jon Imazen kasuak ere ezagunak dira, enpresa pribatuetan hasitako jardunagatik. Imaz Repsoleko buruetako bat da gaur egun, eta enpresariaren interesen ordezkari fidela. ●

ANALISIA



Justizia klimatikoa

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Inor ez ala denok. Klima larrialdia inork ez pairatzeko aldaketak bideratu ezean, behintzat guztiak pairatu dezagula. Zuk –irakurle–, nik –Jenofa–, haiek –pobre– eta haiek –aberatsak–. Satisfaziorik ez zidaten eragin Los Angeleseko suteek, baina justizia sentimendu bat, haatik, bai. Amamaren “pobre ala aberats, hiltzeko tenorean denak hein berean gira” erranaz oroitu nintzen. Noizbait baiez-tapen berarekin hitz egin nahiko nuke klima aldaketaz ere: etorri behar badu, etorri dadila denentzat.

Suak kiskali zituen Hidden Hills, Pacific Palisades, Beverly Hills... Ultra-aberatsen mundu hetsi eta hertsira sartu zitzaizen sua. Milioiak ketan, eta suhiltzaile konpainia pribatuei deika aberatsak. “Pacific Palisadeseko etxea babesteko suhiltzaile pribatuak badauzka norbaitek? Behar gorrian gaude, inguruko etxe guztiak kiskaltzen ari dira. Edozein prezio ordaintzeko prest. Milesker” mezua zabaldu zuen ultra-aberats batek, desesperazioz, munduko aberatsena den Elon Musken sare sozialean. Dirua trukean, norbere interesen alde. Beti. Aberatsen gaitza.

1.300 milioi herritarren heina kontsumitzen dute munduko 50 aberatsenek. 50 horiek bezainbat kontsumituko bagenu guztiok, orduan, bi egunez gaudituko genuke karbono-aurrekontua –beroketa hein bizigarrian mantentzeko gizateriak isuri dezakeen karbono kantitatea–. Bi egun. Herritar ohiko batek 834 urte beharko litzuzke Elon Musken urte bakarreko kutsadura eragiteko –5.437 urte pobre batek–. Oxfam-en datuak dira.

Suak berdin-berdin kiskali zituen, duela hilabete, Mayotteko txabol-auzoak. Paradisukoa izanik ere, irla hartan ez dute enegarren etxebizitzarik aberatsek. Mayotten %77 dira pobreziaren langaren pean. Aterpeen %38 dira txabolak. Bertako herritarren herena papergabea da. Miseria hori Frantziako Estatuaren zigilupean, 1841ean kolonizatu zituelako. Haietzat ez da suhiltzaile pribaturik, segurantzarik ezta estatuaren zerbitzu publikorik ere. Bizirauteko aterpe prekariorik ez dutela gehiago, Lehen ministroak argitu die: “Mayottek ezin du berriz txabol-irla bat bihurtu”. Zikloiak zenbat hil zituen ez dakigu eta ez dugu sekula jakinen. Berdin zaigulako. “Milaka” edo “dozenaka mila” direla badakigu, baina ofizialki “39” dira. 39 horiek erroldatuak izanen ziren, frantziar herritartasunekoak. Besteak papergabeak, baliogabeak.

Horregatik justizia (klimatikoaren) usaina hartu diet Los Angeleseko suteei. ●

25

boto aldeko, kontrako 2 eta 3 abstentziorekin, Aroztegiko auzipetuei elkartzuna adierazi eta absoluzioa eskatzeko mozio bat onartu du Baztango Batzar Nagusiak, urtarrilaren 2an.

%10

igo da EAEko gazteen soldata 2010etik, baina prezioak %31 garestitu dira ordutik. 18-34 urte bitarteko gazte soldatadunen hileko batez bestekoak lehenbiziko aldiz gairatu du 1.500 euroko langa. 2010arekin alderatuta, ordea, 142 euro besterik ez da igo.



60

urte bete ditu Larrabetzuko Hori Bai gaztetxeak; Euskal Herriko zaharrena da. 1965ean sortu zen, frankismo garai betean. "60 urte lotu barik" lelopean eman diote hasiera urteurrenari.

"Sukaldeko gasaren lau aginteak guztiz irekita zeuden; gu desagerrarazteko prestatuta zegoen"

MAIXABEL LASA

Estatu aparatuek Juan Mari Jauregi senarra eta bera hil nahi izan zituztela dio, urtarrilean argitaratuko den *Guerra sucia y abusos de poder* liburuan.

ARGIA.EUS (2025-01-10)



"BURUKO NAHASMENDUA DUGUNAK GARA LAN AUKERA GUTXIEN DITUEN KOLEKTIBOA; ESTIGMA SOZIALARI LOTUTA DAGO"

ELKARKIDE

2025-01-07

"Ez da irakasle gogor bat, haratago doa. Izuak jota ditu haurrak"

Irakasle baten jokabidea "onartezina" dela salatu eta haren klaseetatik seme-alabak ateratzea erabaki dute Atarrabiako Atargi ikastetxeko gurasoek.

ARGIA.EUS (2025-01-08)



Joan zaitez...



DIANA FRANCO EGUREN

2018an itzali nituen sare sozialak, baita gailuen jakinarazpen gehienak ere, bizitzan arreta non jarri kontrolatzen hasteko saiatu asmoz. Egunero lan horretan jarraitzen dut, sitsa argira nola, nire jakin-minak errealitatea ulertzen lagunduko didan informazio freskoa bilatzen duelako etengabe. Garai hartan ez nuen alternatibarik behar, nire kasuan desintoxicazio lan bat zen, nire bizitzaren bilakaketan uhalak berreskuratzeko beharrak bultzatuta. Bestalde, giroa jada ez zitzaidan atzegina suertatzen, norgehiagokan sartuta ziren pertsonak eta erakundeak, botere mediatikoaren grinak gidatuta, ez ezagutzak. Atzean, grin horiek elikatuz sare sozialen jabeak eta giza espeziea degradatzeko diseinatutako negozio ereduak sustatzen dituzten teknologiak.

Baina berriro ireki ditut; bada alternatiba bat, fedibertsoa, sareak egiteko eta erabiltzeko modu ezberdin bat. Bertan, ez da datuei loturiko negozio eredurik sustatzen, instantzia (zerbitzari) ezberdinetatik sartu zaitezke edota zurea sortu. Egungo eduki eta elkarrizketa sareek dituzten aukera guztiak eskaintzen dituzte, kalitate eta etika handiagoz. Peertube.eus (bideoetarako Youtube-ren alternatiba), pexelfed.eus (argazkietarako Instagram-en alternatiba) eta mastodon.eus (saretzeko X eta Facebook eta Bluesky-ren alternatiba) erabiltzen ditut gaur egun, eta horiek eskatzen didaten arreta kudeatzeko errazagoa iruditzen zait.

Beharbada zu ere sareen inguruan hausnarketa egiten zabilta, beharbada erabileraren zentzua argi duzu, baina atzetik dagoen guztia ez duzu sustatu nahi, zer edo zer aldatu behar dela uste duzu, baina nor egingo du lan hori? Ez, ez dute gobernuek egingo, ezta plataformen jabeek ere, azken asteetan adierazi baitute gorrotoaren diskurtsoa ez dela zainduko espazio horietan, euren negozioerako errentagarria baita oso. Gobernuek ere galduta dirudite. Beraz, bakoitzak erabaki beharko du, eta zalantzak izatekotan laguntza bilatu, adibidez goazenlagunok.eus ekimenean. Ni jada beste aldean nago; fedibertsoa bazatoz, bertan ikusiko dugu elkar. ●

Nicolás Maduroren agintaldi berria eta errealitate paraleloak

AXIER LOPEZ

Nicolás Madurok Venezuelako Errepublika Bolivartarreko presidente karguaren zina egin berri du. Sindikalista ohia exekutiboaren eta Indar Armatuaren komandante buru izanen da hirugarren aldi baterako, 2031ra arte.

Kargu hartzean izan zirenek Amerikako, eta hein batean, munduko, aliantza politikoen isla fidela eskaini zuten. Caracaseko ekitaldian izan ziren Honduras, Kuba, Nikaragua, Bolivia, Dominika, Saint Vincent eta Grenadinetako gobernuen ordezkariak. Zeresana eman zuen Kolonbiako Gustavo Petro, Mexikoko Claudia Sheinbaum eta Brasilgo Lula da Silva han ez egoteak, seguruenik hiruek koordinatuta hala erabakita, baina hirurek ere euren enbaxadoreak bidali zituzten inbestiduran laguntzeko. Uruguaiak, Argentinak, Panamak eta Dominikar Errepublikak hautatu zuten Madrilgo Salamanca auzoan erbesteratutako Edmundo González oposiziogilearekin biltzea. Maila globalean, Errusia, Txina, Ipar Korea eta Iranek ordezkariak bidali zituzten Venezuelara. Eta jakina, Amerikako Estatu Batuak eta Europar Batasuna ez ziren bertaratutako, eta berretsi egin zuten González "egiazko presidente hautatua" dela haien artean.

Nazioarteko eskuinaren eta ultraeskuinaren errezeta nagusia ez da aldatu Chávezen lehen urteetatik gaur egunera arte: Venezuelako Gobernu nazioartean (Mendebaldean) isolatzea, zigor berrien bidez gerra ekonomikoa areagotzea, Donald Trump-en erabakien zain egotea eta, bien bitartean, errealitate mediatiko paraleloa elikatzen jarraitzea: Venezuelako sistema demokra-

tikoa diktaduratzat jotzea, zeinean Mendebaldeak babesten duen oposizio eskuindarrak estatu eta hiri garrantzitsu batzuetan agintzen duen. Zinez, diktadura bitxia da Venezuelakoa.

Ehunka milaka pertsona dira azken garaietan herrialdearen egoera ekonomiko makurragatik emigratu behar izan dutenak. Egoera ez da samurra eta Maduroren gobernuari gauza asko kritika dakizkioke. Ezkerretik ere bai. Eta horrela egiten dute Venezuelen bertan mugimendu antikapitalista batzuek. Baina, egiari zor, Venezuelak ez baleuzka munduan egiaztatuta dauden petrolio-erreserbarik handienak, ez ginateke hitz egiten ariko gaur egungo terminotan eta intentsitatean. Haren gaineko etengabeko foku (geo)politiko eta mediatikoak hor du pizgarria.

Saudi Arabiako diktadurak kazetari bat hil eta bere gorpua laurdenkatu dezake bere enbaxada batean. Europar Batasunak ez dio inolako zigorririk jarriko, eta, asteburu honetan bezalaxe, bere emirrak lasai ederrean ikusiko dituzu sariak banatzen Espainiako futbolariaren artean (40 milioi euroren truke). Haitiren ispilua ere hortxe daukagu. Ia inork ez du haitiarrez hitz egiten, ia inork ez da haien egoeraz kezkatzen. Hilabeteak eta hilabeteak daramatzate parekorik gabeko kaos politiko, ekonomiko bati kateatuta, hildakoak bata bestearen gainean jarrita, Venezuelatik 1.000 kilometrora. Baina beste kontinente batean, Espainiako telebistek, adibidez, hauteskundeak galdu dituen oposiziogilearen mitina, hiru mila lagunengatik, zuzenean eskainiko dizute. ●

“Irakasleok burokrazia erabat antzuarri eskaini behar diogu parte handiena”

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

HezkuntzArtea Irakasleen Elkargu-nea sortu du EAEko irakasle talde batek. Hezkuntza politiken “noraeza” salatu nahi dute, politika horiek etengabeko metodologia berrietan, “burokrazia ikaragarrian” eta IKTen “erabilera zentzugabea” oinarritzen direla argudiatuta. Taldeko Tere Maldonado irakaslearekin hitz egin du ARGIAk.

Zeintzuk zaudete HezkuntzArtean?

30 irakasle pasatxo gara, gehienak DBH-koak, baina HH, LH eta unibertsitateko baten batzuk ere badira. Gehienak publikoan ari gara, nahiz eta irakasle guztiei zuzentzen garen. EAEko irakasleak gara eta aurrerago ziurrenik Nafarroakoekin harremana izaten saiatuko gara.

“Etengabe ebidentzia zientifikorik gabeko metodologia berrietan trebatzen gaituzte”, diozue. Iparririk gabeko berrikuntza bultzatzen ari dira administratziotik?

Erabat da iparririk gabea. Badirudi etengabe berritzea berez ona dela, horrela jokatzen dute Eusko Jaurlaritzatik; “berrikeria” hitza erabiltzen dut nik. Ikasleengan pentsamendu kritikoa bultzatu behar dela errepikatzen dute behin eta berriz, ikasgai berri bat sortu dute izen arranditsu horrekin, baina gero ez dira kapazak beren jarduera kritikoki aztertzeke. Alderantziz, hizkera berri bat sortu dute, dotrina hutsa dena eta modu akritikoan erabiltzen dutena. Guk dioguna da metodologia berriak onak zein txarrak izan daitezkeela, berdin metodologia zaharragoak. Eta metodologiak ez dira hezkuntzan gako inportante bakarra, edukien garrantzia baloratzea itzuli behar dugulakoan gaude, irakatsi behar dugun hori baloratzea. Metodologia berriekin gure ikasleak inoiz baino gutxiago ari dira ikasten, oso larria da eta aldatu beharra dago. Denbora guztian irudikatzea ikaskuntza eta bizitza jolasa direla akatsa da, batzuetan ikastea ere bada isilik, norbere lanean bilduta... egoitea, eta zerbait ikastea eta ulertzea plazer handia da. Gure galdera da: pedagogiaren barruan, zergatik ez zaio inolako



TERE MALDONADO UTZIA

garrantzirik ematen ikasgai bakoitzak berezkoa duen didaktikari? Lehen aipatu dudan edukien garrantzia eta urtetan irakasleek pilaturiko esperientzia lehenengo planora ekarriko lituzke.

Berrikuntzaren gupil horretan, teknologia berriek rol garrantzitsua dute. Kritikoak zarete IKTen erabilerarekin.

Ikasketa prozesuan gailu horiek guztiak sartzeak ekarri zuen promesa zoragarri hura iruzurra dela gero eta argiago geratzen ari da. Teknologia horiek sarri ez dute ikaskuntza prozesuan laguntzen eta ikaslearen arreta zentratzeke orduan trabak ekartzen dituzte. IKTak tresna bat gehiago dira, baina koadernoak berreskuratu behar ditugu.

“Txostenak, galdetegiak, egingarriak ez diren programazio didaktiko ulertezinak...”, irakasleen artean erre-sindromea orokortuta dagoela diozue. Non jartzen dira indarrak eta non jarri beharko liriateke?

Gure lana da irakastea, horrek hartzen dituen jarduera guztiak barne: azaltzea, zalantzak argitzea, ikasleari laguntzea, pentsaraztea, arazo batean dauden alderdi ezberdinak ikusaraztea, zuzentzea, ebaluatzea... eta horretarako programazioa

egitea eta txostenak idaztea gure zeregin-tzat dugu, baina azken boladan gertatzen ari dena jasanezina da, gure jardunaren parte handiena burokrazia erabat antzuarri eskaini behar izatea. Zehaztasun milimetroko programatu behar dugu (baina programazioak gida bat dira, tresna bat, ez helburua), berdin ebaluatzerakoan... Are, ikasgaitik harago, elkarbizitzari edota diziplinari lotutako kontuekin arazoren bat baldin badago, administrazioan lasai geratuko dira Excelean edo PDF fitxategian txosten andana uzten badugu zintzilik, eta gure betebeharra ez da hori: gure betebeharra da arazoa konpontzea, eta gero bai, egin dugunaren berri ematea, baina modu arruntean, ez eskatzen duten gisan. Denbora behar dugu klaseak prestatzeko, eguneratzeko, egokitzeke, behar bezala zuzentzeko...

Manifestua aterako duzue laster. Ondoren, zer?

Gure azken helburua litzateke hezkuntza politiken noraieza geldiaraztea eta hezkuntza erakunde publikoek politika zentzudunak gauzatzea, gure lana erraztea. Momentuz, nahi dugu eztabaida plazaratu eta irakasleonek nekearen berri eman. Badakigu irakasle asko dagoela guk bezala pentsatzen dutenak; batzera animatzen ditugu. ●

ALJERKO KASBAHKO SASTAKAIA: JEAN-MARIE LE PENEN IRAGAN TORTURATZAILEAREN FROGA

96 urte zituela eman du azken hatsa Jean-Marie Le Penek aurtengo urtarrilaren 7an. Heriotza bat festatzea ez bada ohikoa ere, hori gertatu da beretzat: milaka herritar batu dira Frantziako Estatuko hainbat hiritan, suziri, kantu eta xanpai botila artean, eskuin muturreko ordezkariaren heriotza ospatzeko. Etenik gabe, herra eta arrazakeria sustatzen eta hauspotzen arituriko po-

litikaria zelako Jean-Marie Le Pen. Gizon horren iragan torturatzaileari begira jarri gara erreportaje honetan, hain zuzen, dozenaka –zehazki ezin jakin zenbat– aljeriar independentista zituelako torturatu –batzuk hiltzeraino– Aljeriako Gerran (1954-1962). Aljeriarren tortura orokortua zuten frantses soldaduek eta historialariek diote, ehun-ka mila torturatu zituztela.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Torturatzaile bat zen, torturatzeari ikusten zion funtsa eta ez zuen zailtasunik horren asumitzeko: “Pertsona bat torturatu behar bada beste ehunen salbatzeko, orduan tortura saihetsezina da; eta justua ere da ohiz kanpoko baldintzetan jardun behar denean”. Jean-Marie Le Pen zenaren hitzak dira, 1957an *Le Monde* egunkariari errandakoak. Berretsi egin zuen bere postura 1962ko azaroaren 9an, hots, Aljeriak independentzia berreskuratu eta aski fite: “Ez dut deus gordetzeko. Torturatu dut, hala egin behar zelako. Une batetik bestera zartatu daitezkeen hogeitabonba gorde berri dituen bat ekartzen badidate eta ez badu mintzatu nahi, orduan ezohiko bideak erabili behar dira”. Eskuin muturreko politikari ospetsua izan da Jean-Marie Le Pen, Fronte Nazionalaren sortzaile eta ordezkari historikoa, aurtengo urtarrilaren 7an zendu dena. Proiektu politiko bera esku artean duela, Frantziako Estatuko presidentetzatik hurbilegi dugun Marinen aita da.

Lekukotasunak, artxiboak zein kazetaritza argitalpenak, Le Penek Aljeriako Gerran (1954-1962) bideratu torturen frogak ez dira eskas. Florence Beaugé kazetariari zor dizkiogu ikerketa kazetaritza hortako ekarpen esangura-

tsuenak; funtsean, auzitegietan barna defenditu behar izan dituenak, Le Penek berak difamazio salaketa jarririk. Baina, epaileek aldi oro argi utzi dute: ikerketa “bereziki serioak eta landuak” ditu eta Le Penen torturei buruzko testigantzen “koherentzia” eta “sinesgarritasuna” ezin ukatuak dira.

Artikulu hau ilustratzen duen argazkiko sastakaia dugu Historiak utzi digun froga material bat: *J.M. Le Pen, 1er R.E.P.* zizelkaturik du sorbatzan –Jean-Marie Le Pen, Kanpoko 1. Paraxutista Erregimentua–, eta 1933tik 1942ra Hitleriar Gazteria erakundekoentzat eraikiko ziren armatariko bat da. 1957ko martxoaren 3an aurkitu zuen hamabi urteko mutiko Mohamed Moulayk, eta kasik bizi osoan gorderik atxiki ondoren, 2002ko maiatzaren 4 hartan ekarri zuen plazaren erdira, lehen aldikoz eskuin muturra –Jean-Marie Le Pen bera– buruz burukoan jartzen zuen Frantziako presidentetzarako bigarren itzuliaren bezperan: “Eskuak odolez estalirik dituen gizon bat Eliseora sartzekotan da, egoera larria da. [...] Ez dugu publizitaterik ala dirurik espero. Aljeriako gerraz urrunduntzen aspaldi, baina jakin Frantzian gertatzen denarekin izu-ikara sentitzen dugula Aljerian ere”.

1957ko gau hartan sartu zitzaion hogeitabonba soldaduko patruila etxera, FLN Aljeriako Nazio Askapenerako Fronteko kide zuen aita torturatzerara. Aljerko Guduarekin ezaguna den gerra horretako orrialderik beltzenean “etxe barneko torturak” bideratzen zituen Frantziako armadak, hots, etxetik atera gabe, lekuan berean torturatzen zituzten independentistak. Emaztearen eta sei umeen aitzinean torturatu zuten Ahmed Moulay, 42 urteko aljeriarra. Torturatu, hil arte. Patruilaren buru zen Le Penek sastakaia ahantziko zuen etxean. Biharamunean eta etzidamuan etorriko ziren bila, etxe guztia miatuko zieten arma atzeman nahian; baina umeak gorderik eta isilean atxiki zuen sastakaia, gehiegi jakin gabe zergatik. 40 urte geroago hartuko zuen berriz esku artean *Le Monde*-ko kazetari Florence Beaugéren esku uzteko. Le Penen torturak frogatzeko arma nagusienetarikoa izanzen zuen gerora kazetariak *J.M. Le Pen, 1er R.E.P.* grabadura dakarren sastakaia. Aitarene heriotzaren biharamunean arma gorde eta sasia sartu zen Mohamed, Aljeriaren independentziaren aldeko gudari gazteena bihurturik, omen.

Ez dezagun ahantzi historia horretatik datorrela Fronte Nazionala, nazien kolaboratzaile eta Aljeria kolonizatuaren



TORTURATZAILEAREN ARMA

J.M. Le pen, 1er R.E.P. – Jean-Marie Le Pen, kanpoko 1. paraxutista erregimentua– zizelkaturik dakarren sastakaia. 1957ko martxoaren 3an aurkitu zuen hamabi urteko Mohamed Moulayk. Bere aita torturatu eta hil zuten frantses soldaduek ahandi zuten bere etxean. Horien artean zen Jean-Marie Le Pen, eta armak zehazten duen bezala, berea zen sastakaia.

nostalgikoez 1972an sorturiko alderdia. Hain justu ere, iraganaren kargaz bereizteko eta itxura ezititzeko asmoz berri-zendatu zuelako alderdia Marine alabak, Batasun Nazionala izena jarrita 2018an. Jean-Marie izan zen alderdiko lehen presidentea (1972-2011), ondotik Marine (2011-2021) eta gaur egun Jordan Bardella dute buru.

Dozenaka testigantza dira, dozenaka aljeriar torturatu zituelako Le Penek. Tartean, Mohamed eta Dahmane independentistenak: “Matalaza kendu eta somierrari estekatu gintuzten aita eta ni neu. Elektrizitateari lotu ziren. Jean-Marie Le Penek zuen etengailuan eragiten. Torturatzailen burua zen Jean-Marie Le Pen”. Horrelako beste anitz jasotzen dituzte Fabrice Riceputi historialariaren *Le Pen et la torture. Alger 1957, l’histoire*

contre l’oubli (Le Pen eta tortura. Aljer 1957, ahazturaren kontrako historia) zein Hamid Bousseham historialari eta kazetariaren *Torturés par Le Pen* (Le Penek torturaturikoak) liburuek.

AFASIA POST-KOLONIALA

“Afasia post-koloniala” terminoa erabili eta Aljeriako gerrako torturei buruz ez dela behar bezain beste hitz egiten dio Riceputik. Are gehiago, Frantziako Estatuan mugimendu negazionista bat ere badela deitoratzen du, bistan da Aljeria frantsesaren aldekoen partetik, baina hortik harago, baita biztanleria zabalago baten partetik ere.

Aljeriaren independentziaren oinarrian dagoen 1962ko Eviango Hitzarmenak dakartzan Amnistia Legeek babesten dituzte torturatzaille horiek. Ondokoa

dio historialariak: “Le Pen eta Aljeriako gerrako beste kriminal batzuk, tartean Maurice Papon, babestu dituzte Amnistia Legeek eta difamazioa leporatu ahal izan diete aurkari guztiei. Isiltasuna eta amnesia ondorioztatu dituzte”. Hain zuzen, frantses armadaren urraketa oro ditu estaltzen amnistiak. Bere iragan torturatzaillea asumitu arren, lasai lo egin ahal izan du beraz Le Penek.

250.000 aljeriar hil ziren gerra horretan eta beste bi milioi zituzten preso sartu kanpamendu kontrolatuetan. Tortura sistemizatu zuten Frantziako soldaduek: ehundaka mila zituzten torturatu, Pierre Vidal-Naquet historialari ezagunaren arabera. Jacques Massu jeneral ospetsuak ere aitortu zuen 2000n: “Torturak zigortua izan beharko zukeen, baina babestua izan zen, babestua baita agindua ere”. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Ander Zangitu

ERAIKINEZ HARAGO



JOERA BILAKATU DA, BAINA EZ DAGO SUKALDEA ETA EGONGELA BATERATZEKO PISUZKO ARRAZOIRIK



laz egin nuen topo lehen aldiz Ander Zangiturekin, Azpeitiko Dinamoaren sormen gunean antolatzen duten Hitzaren Eskolan. Isiltasunaren inguruan aritu ginen, batez ere, hausnarrean. Harrezkeroztik tentu handiagoz erreparatu die haren formei bere ogibidearen mundutik, arkitekturatik. Arantzazuko santutegian elkartzekoak baginen ere, osasun aferek hitzordua atzerarazi digute eta kafetegi ez hain isil batean bildu gara.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Zer da arkitektura?

Arkitektura oso afera konplexua da. Wikipediara joan naiz zein definizio ematen dion ikustera eta “giza habitataren diseinuaz arduratzen den zientzia edo artea” dela dio. Baina elementu fisikoetatik haratago doan diziplina da eta gure egunerokotasuna baldintzatzen du erabat. Arau moralak transmititzen ditu, besteak beste. Jantzen dugun arropa bezalakoa dela esan genezake. Arropa bat edo beste jantzen dugunean, izateko modu bat ari gara erakusten, modu kontziente ala inkontzienteagoan.

Arkitekturak duen ezaugarri nabarmenteko bat erritmo motela da. Orain dela 30 edo 50 urte diseinatutako eki-

dek gaur egun daukate guregan eragina. Hau da, hirigintza plan bat egiten denean herri bat diseinatzeko, demagun, hori gauzatu orduko pasa daitezke hamabost urte eta, eraikitzen denerako, proiektzioak berak guregan eragina izan du.

Ezin izan dugu Arantzazun elkartu, baina han biltzeko proposamena egin zenidan. Zergatik?

Uste dut Arantzazuko santutegiaren arkitektura oso adibide ona dela isiltasunak identifikatzeko. Alde batetik, isiltasunak presentzia fisiko handia duelako, baina, aldi berean, eraikinak berak ere isilune desberdinak adierazten dituela-ko bere formetan eta espazioetan.

Vitruviok esaten zuen arkitektura onak hiru ezaugarri orekatu izan behar zituela: *utilitas*, erabilgarritasuna; *firmitas*, sendotasuna; eta *venustas*, edertasuna. Egungo arkitekturara ekarrita, hori ez da betetzen. Gure ekidek badute sendotasuna, baina espazioei ematen diegun erabilgarritasuna zalantzan jartzen dut eta edertasuna ere oso leku zehaztetik eraikia da. Hor sortzen zaidan zalantza da arkitektura hauetan non geratzen diren gure behar eta desioak.

Arantzazuko santutegia oso ondo diseinatuta dago, baina ez hori bakarrik. Aipatu dudana isiltasunaren presentzia hori bera ez da beste ekida batzuetan sentitzen. Egia da, eraikin guztietan be-



Ander Zangitu Orbea

BERGARA, 1990



Formazioz arkitektoa da. Karrera ikasten ari zela, arkitekturaren potentzialitate politikoak bulztatuta murgildu zen kontzeptuen sakontasun teorikoan. Horiei hitza eman asmoz hasi zen UEUren *Aldiri*. *Arkitektura eta Abar* aldizkarian idazten, honek bere bidea eten zuen arte. Ekonomia sozial eraldatzailearen alorrean ibili da lanean azken urteotan, Hiritik At kooperatiban dabil egun.

zala, arau batzuk daudela honetan ere eta isiltasunarekin harremana izan dezaketela, baina denbora eskaini zaion arkitektura da hau: nola dagoen diseinatuta espazioaren erabilera, erabiltzen diren materialak, argia... Gaur egun oso azkar eraikitako arkitekturak bizi ditugu, berehalako beharrei erantzuten dietenak.

Inportanteak iruditzen zaizkit atzera begiratze hauek, ahalbidetzen digutelako ikustea zelan eraikitzen zen lehen. Beste erritmo batean planteatzen zen dena, gaur egungo gure arkitekturak oso zaratatsuak dira eta gogaikarria egiten zaigu isiltasuna.

Eta Arantzazu beste ingurune batean eraikia balego?

Kasu honetan eraikinak berak karga sinboliko handia du. Batzuek eliza bat besterik ez da, baina, isilean, eraikinaren atzean gauza asko daude. 1950eko hamarkadan Elizak obra denak gelditu zituen, besteak beste, Oteizak planteatzen zituen apostoluak ez zirelako Elizak planteatzen zituenak. Zentzu horretan beti egon izan da talka ideologikoa eraikinarekiko.

Elizarendako oso eraikin ederra da, leku esanguratsuan dago eta historia du, baina, aldi berean, gaur egun turistik *Ocho apellidos vascos* (Zortzi abizen euskaldun) filmaren ibilbidearen parte gisa ikusten dute, adibidez, ez besterik. Arkitektura politika da eta eraikin hau egun gerra dialektikoan dago. Oso jende gutxi jakinen du, esate baterako, euskara batuaren lehenengo arauak bertan adostu zirela edo *Jakin* aldizkaria bertan argitaratu zela frankismo garaian. Edota *Egunkaria* ixtera joan zirenean Guardia Zibilaren beste kotxe batzuk Arantzazura zihoazela atxilotetak egitera. Isilune asko gordetzen ditu Arantzazuk.

Behin baino gehiagotan aipatu duzu eraikinek isiltzen dutena.

Arkitekturak, gauza fisikoez haratago, gauza ikusezin asko biltzen ditu eta isiltasuna da horietako bat. Senti edo suma dezakezu. Uste dut ekidak gure gorputzak eta bizitzak eraikitzeke beste tresna bat direla. Bide horretatik, Michel Foucaultek *Surveiller et Punir* (Behatu eta zigortu) liburuan mikrobotereak aipatzen ditu eta hor diziiplina-arkitekturaz min-

tzo da. Diziiplina-arkitekturen helburua diziiplina bera eta ordena ezartzea da, baita zigorra edo saria ematea ere.

Eliza bada diziiplina-instituzioa. Apai-zaren eta fededunen arteko botere-harremana bermatzen du eta hor bertan eraikitzen da araua. Baina estrapola liteke eskola bateko irakasle-ikasle harremanera, psikiatriko bateko mediku-paziente harremanera... Edo etxebizitzara bertara. Ekida batzuk isilean pasatzen zaizkigu egunerokotasunean, baina gure gorputzetan oso eragin handia dute.

Emanen didazu eragin horien adibide zehatzen bat?

Taberna batean sartu eta mahai batean esertzen bagara, segur aski atera begira jarriko gara, ez hari bizkarra emanez. Segurtasun kontua da, egoera kontrolpean izatea ahalbidetzen digu. Eta dizi-



“Arkitektura beti izan da gizakia babesteko, baina gizaki hori beti izan da zuri, normatibo, burges eta zisheteroa, orokorrean”

iplina-instituzioetara itzulita, bada, ikastetxeetan nola egoten garen: irakaslea arbelean dago, askotan altuera batean, elizetan bezala, eta beste guztiok hark dioena errepikatzen.

Arkitektura forma horien hondoan dagoen helburua gizartearen homogeneizazioa izaten da. Denok senti dezagula eta izan gaitzela berdin, bloke baten gisan. Horrela, normatibotasunetik kanpo geratzen diren gorputzak neutralizatu eta kanon batzuen barnean espetxeratzen dira.

Gorputz unibertsal batetik planteatu izan da beti arkitektura. Beti izan da gizakia babesteko, baina gizaki hori beti izan da zuri, normatibo, burges eta zisheteroa, orokorrean.

Etxebizitza aipatu duzu lehen.

Gaur egun arkitekturaz hitz egitea eta etxebizitzaz ez hitz egitea akats handia da. Denok gara oso kontziente guztiondako izango den etxebizitza duinerako eskubidea bermatzeko beharra dagoela, baina egungo egoera ulertzeko, lehen Arantzazuko santutegiarekin aipatu dudana bezala, atzera begirako ariketa egin behar da.

“Jabeen herrialde bat nahi dugu, ez proletarioena”, bota zuen José Luis Arresek, Espainiako lehen Etxebizitza ministro frankistak: “Komunista gutxiago egoteko xedez, espainiar oro etxebizitza baten jabe egingo dugu”. 1950eko hamarkadan estatu mailako makineria guztia jarri zuen Arresek martxan etxe-



bizitzak eraikitzeko, helburu argiarekin: langile klasearen komunitate eta kolektibotasunari zirrikituak planteatzea. Horretarako, dirulaguntza handiak eman zitzaizkien higieziei eta eraikuntzarako materiala oso prezio merkean jarri zen. Eskubide gisa planteatu beharrean, hasieratik merkantilizatu zen etxebizitza. 1950. urtean Bilboko biztanleriaren %46 alokairuan bizi zen. Arresek politika horiek planteatu eta urte batzuetara ez zegoen alokairurik Bilbon. Horrek guztiak ere behartzen gaitu “jabetza”ren kontzeptua mahai gainean jartzera. Gaur egun aldarrikatzen den etxebizitza eskubidea etxebizitza baten jabe izateko eskubidea da. “Etxebizitzarako sarbidea” esaten da baina askotan jabetza dago hor atzean.

Komentatu duzu eraikin batzuek ez dietela egungo behar eta desioei erantzuten.

Gure belaunaldi prekariora sartzen da askotan frankismoak herentzian utzi dizkigun etxe zahar batzuetan eta zalantza hori sortzen zait: zein behar ase behar ditu egungo gure etxebizitzak? Zein balio ematen diegu bertako espazioei?

Orain dela 30 edo 50 urteko beharrik eta gaur egungoak oso desberdinak dira. Momentu honetan superjoera bat

ikusten ari naiz eta pixka bat *hater* nago: jende batek etxe bat erosten du, eraberritzen du eta sukaldea eta egongela batera planteatzen ditu. Zergatik egiten da hori? Zein beharri erantzuten dio?

Zergatik da?

Hor egiten den irakurketa da sukaldea etxebizitza eta familia tradizionalaren espazio erreproduktiboa izan denez, non emakumeak eraiki duen bizitza eta familia, horren deuseztatzea dakarrela erreformak. Hau da, gure bizitzetan espazio bihotz izandakoa desitxuratu eta izaera kolektiboari arrakala sortzeko beste bide bat da. Agian nire iritzia da, baina joera bilakatu da sukaldea eta egongela bateratzearena, ez dagoenean benetako pisuzko arrazoirik.

Nik oraintxe bertan aldeko eta kontrako gauzak zerrendatuko banitu, kontrako gauza gehiago zerrendatuko nituzke aldekoak baino. Espazioak irabazten du argitasuna edo etxe handiagoa irudikatzen aukera, bai, baina hor dator galdera: zergatik dira gaur egungo etxebizitzak horrelakoak? Frankismoan etxebizitza eta turismoa indarrez bultzatu ziren, eta ez da kasualitatea etxearen problematikak gaur egun bi alde horietatik edukitzea.

Egungo beharren arabekoak balira, nolakoak lirateke etxebizitzak?

Duela gutxi argitaratu dira datuok: EAEn erroldatutakoetatik jende gehiago bizi da bakarrik (290.000 etxebizitza) familia tradizionalen baino (289.000 etxebizitza).

Orain arte etxebizitza familia nuklear normalitza erreproduzitzeko modua ere izan da eta ikustea 290.000 pertsona bizi direla haien beharrei erantzuten ez dieten arkitekturetan... Hor dago ariketa. Eta ez da arkitektura berriak planteatu behar direla bakarrik, baizik eta zaharrak deseraiki eta horiek aldirietatik edo beste gorputz batzuetatik ber-habitatzeko beharra dagoela.

Gutxiegi begirutzen diegu jabetzaren alternatibei?

Jabetzaren kontzeptuaren inguruan deseraikuntza behar da eta hor ekonomia sozial eraldatzaileak pista batzuk ematen dizkigu. Lagapen erabilerako etxebizitzak martxan daude Katalunian, adibidez. Alternatiba bat da etxebizitzak merkatu-logiketatik kanpo eraikitzeko. Ez zara etxebizitzaren jabe, erabiltzeko eskubidea bermatzen dizu X denboran eta X diruren truke. Ez dago espekulaziorik eta merkatuaren edota monetarren aurretik kokatzen da pertsona.



Arkitekturak badu ekonomia sozial eraldatzaileari begiratzeko beharra, eta ari da, baina oraindik arkitektura eskolatan planteatzen den hezkuntza ez doa hortik. Arkitektoak orojakilea behar du, jakin behar du legeez, eraikuntzez, instalazioez, argiztapenaz, uraz, gasaz, aireztapenaz... Hemen ez, baina Europa mailan arkitektura eta eraikuntza zibila bereizten dira. Arteari lotuago dago arkitektoa, eta instalazio eta bestelakoei, eraikuntza zibilean dabilena da.

Arkitekturaren parte al dira eraikinik gabeko espazioak?

Espazio eraikiak pribatuak dira norma-lean eta horietatik kanpo geratzen da "espazio publikoa". 1990eko hamarkadan planteatu zen "espazio publikoa" kontzeptu gisa eta ez da kasualitatea. Hiri batzuetan, Bilbo kasu, berrikuntza handiko garaia zen eta kaleari "espazio publiko" esaten hasi zitzaion. Kontzeptu horren bitartez hasten dira transmititzen arauak, debekuak, egoteko moduak... Horrela hasten da erabiltzen espazio publikoa gure gorputzak erakitzekeo tresna gisa eta, hau ere ez da kasualitatea, espazio publikoan ematen da gizentasunaren adierazpen edo konfigurazio handiena. Gizonendako eraiki

dira, emakumeak arrotz sentitzen dira horietan.

Bada pelikula espainiar bat, *Los huevos de oro* (Urrezko arrautzak), Espainiako higiezinaren espekulazioa kontatzen duen lehen pelikula, Benidormen (Alacant) pasatzen dena. Gizentasunaren eraikuntza eta arkitekturaren *boom*-a elkartzten dira eta ustezko gizon arrakastatsu baten istorioa kontatzen du Bigas Lunas zuzendariak. 1990eko hamarkadako gizon horrek eta egungo arkitektoak zerikusi handia dute.

Nola eragiten dio inguruak eraikinari?

Inguruak beti eragingo du. Eragiten du guk eraikin horrekiko dugun pertzepzioan batetik, baina bestetik, eraikinak ere badu inguruarekiko irakurketa eta harekin harremana, eta horrek ere eragiten du. Hau da, Bilboko Guggenheim bat bat-batean Urdaibain planteatzeak ez du zentzurik.

Zein garrantzi ematen diogu guk inguruari? "Hiria eta bestelako politikak" izeneko tailer batzuk egin ziren Tabakaleran (Donostia) duela urte batzuk eta zentral nuklearren ingurukoa izan zen bat. Bertan aipatu zen Lemoizko eraikinaren atzean zein istorio dagoen,

zeren eta eraikinen bitartez eraikitzen da memoria edo kontakizuna. Eta planteatzen zuten Lemoiz badugula borroka edo testuinguru baten adierazle gisa, baina ez dakigula egun Deba-Zumaia lotzen duen flyscharen bidean, orain parke natural den horretan, zentral nuklear bat planteatzen zela. Ni kasualitatez enteratu naiz. Zentzu horretan, arkitekturak kristoren kontakizuna egiten du.

Non duzu fokua momentu honetan?

Uste dut gizentasunaren inguruan ulertzen ez ditugun gauza askotan arkitekturak baduela zer esana. Pute-teekek, adibidez. Azken hamarkadetan, teknologia medio, transformazioa egon da agian eta putetxeek etxeetara edota Internetera egin dute salto, baina ez zaizkigu arrotzak egiten errepidetik ikusten ditugun *klub*-ak. Txikitatik aurrera gurasoekin joanda identifikatu ditugun arkitekturak dira, isilean daudenak, baina iraun dutenak. Bai gure gizarte honetako familia normatiboen sostengu izan direlako, alde batetik, eta baita puntu batean emakumeen espetxe ere izan direlako, bestetik. Esplotazio arkitekturak dira eta oso kontzientzia gara. ●



Iritziak

Trump, berriro



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI
EKONOMIALARIA**

Donald Trumpek urtarrilaren 20ean berriro hartuko du AEBetako lehendakari kargua, eta bigarren agintaldia izango du Etxe Zurian. Aurreko agintaldian, 2017-2021ean, lotsa gutxirekin ibili bazen erabakiak hartzeko orduan, agintaldi honetan konplexu urri horiek ezabatuko ditu eta gura duena egingo du, bere gobernuaren osaketak hainbat ondorio irudikatzen baitizkigu.

Uste genuen Trump eta teknologia berrien industria ezkongaitzak zirela, baina hara nondik Elon Musk bera erakarri zuen, duela urte batzuk arte etsaiak izan arren; Muskek hauteskunde kanpainarako dirutzak eman zizkion eta orain fruitu oparoak jasoko ditu. Silicon Valleyko jauntxoak ere Trumpen aurka zeuden, baina garaipena ikusi ondoren, milioika dolar ematea erabaki dute, lehendakari kargua hartzeko ekitaldia borobila izan dadin. Jeff Bezosek ere uste du Trumpekin bere mozkin erraldoiak areagotuko dituela eta lotsarik gabe men egin dio.

Bestalde, Trumpen garaipen argiak AEBen gainbeheraren froga bat gehiago ematen digu, munduko jendarmea izatetik bizkartzain xume izatera heldu baitira. Izan ere, hasi Vietnameko Ho Chi Minheko (orduan Saigon) ihesarekin eta jarraitu Afganistango erretira lotsagarriarekin, bazterrak nahasi besterik ez baititu egin: Irak, Libia... Latinoamerikako hainbat herrialdek ere hortzak

AEBen kasuan, Trumpen politika ekonomikoa kapitalismoaren gaur egungo hedatze nahiari kontrajarrita legoke

erakutsi dizkiote, hala nola Panamak edo Mexikok.

Bere botere ekonomikoa gordetze aldera, batik bat Asiatik datozen inportazioak murrizteko, muga zerga altuak ezartzen ari dira AEBak, barne industria babesteko, bestela bertako lanpostuak kolokan egongo direlako. Baina hori guztiori, hainbat aldiz aldarrikatu duten merkatu librearen doktrinarekin kontrajarrita egongo litzateke, ezerezean geratzen ari baita.

Kapitalismoak beharrezkoak zituen estatuak XIX. eta XX. mendeko erdialdera arte, barne estatu-merkatua eta hiritarrak goxatzea beharrezkoak baitzitu. Ondorioz, industria estatala eta ongizatea garatu ziren, kristau-demokrata eta sozialdemokraten gidaritzapean; baina XXI. mendeko ekonomiak estatuak soberan dauzka, oztopo ez bada bilakatu.

AEBen kasuan, Trumpen politika ekonomikoa kapitalismoaren gaur egungo

hedatze nahiari kontrajarrita legoke. Alde batetik, Muskek merkatu globalean jokatu gura du bere auto elektrikoak saltzeko, baina, bestetik, muga zergak ezarri nahi ditu txinatarren autoen salmentak AEBetan galgatzeko; industria aeroespaziala ere indartuko du diru publikoa erabiliz. Musken beste eginkizuna, administrazio federala murrizteaz gain, jarduera publikoa esternalizatzea izango da, baina ez du gastu publiko orokorra mehartuko.

Bestetik, Kennedy, txertoen kontra-ko, osasungintzako idazkari gisa izendatu du, eta ez dut uste txertoen ekoizle diren farmazeutiko erraldoiek eta boteretsuek gogoz onartuko dutenik, beraien interesen kontra egongo baita.

Garrantzi handiko beste atal bat etorkinena da. Oro har, AEBetan eskulan merkearen premia dago, etorkinen etorrera galgatzen bada eskulanaren soldatek igotzeko joera hartuko dute, eta ugazabei ere ez zaie komeni, beraien mozkinak murriztuko direlako.

Trumpen beste helburuetako batzuk dira aberatsei zergak jaitea eta gastu mailari eustea, salbu defentsara zuzendutakoa, konplexu militar-industrialia profitatze aldera. Hori dela eta, zor publikoarekin finantzatu du aurrekontu federala. Ondorioz, AEBetako hiritar aberatsenen %1ek Errenta Nazionalaren %20 gaindituko du eta, bitartean, gainontzeko %99ari zati txikiagoa geratuko zaio. ●

Primaderako liliak



NORA SALBOTX ALEGRIA
MAISTRA

“Urte berri-berri, zer dakarrazu berri?” oihukatzen genien, urteko lehen eguneko gaupasatik bueltan, bidean gurutzatzen genituen goiztiarrei. Eske puxken esperantzangu, mozkor panparrotuok. Eta artean ez baitzen ez *runner*-ik ez eta *selfie*-rik ere, gehien-gehienara topatuko genuen bart arratseko gehiegizko afaria porrotkatzera ateratako lasterkari eroxkaren bat, Urteberriko mendi bueltaz betiereko itzuleraren erritua berritzeko prest-presta kuadrilla koloretsua, edo periodiko-ogietarako eguneroko errutinan laketuta, denda itxirako joan-etorrian, jubilatatu despistatu bakan batzuk.

Garai hartan, *Primula vulgarisak* (sanjose edo udaberri loreak) primaderaren iragarle ziren. Martxo erditsuan bide bazterrak estalita ikusten genituen eta Garbiñe Larreak *Sendabelarrek dakitena* liburu eder horretan dioen gisan, “negu ilunean bazterrak apaintzen eta alaitzen” zizkiguten.

Urteak eta adina kurri, apaintze eta alaitze horien peskizan akaso, *runner* baino, aukeran, gauza ñimiñoiei patxadaz begiratzen dien mendizaletasuna hautatu duen honi, lore hori ttipiak bortzegien parean suertatu orduko hasten zaio besta. Lehena ikusterako halako poz batek hartzen dizkit barrenak eta egun seinalatu bilakatzen dut zorioneko data. Eguna apuntatzen dut, argazkia egiten, klik, inguruko guztiei sanjose lorea ikusi dudala iragartzen, sareetara jotzen, post. Inaute sasoiako Orakunde



MAIDER LETURIAGA

eskean ere, udaberri loreak ikusiz gero, “halako eta holako baserrirako bidean ikusi ditugu eta hasi dira sortzen eta zer lastima han ez zinela eta begira: bat ekarri dizut”, etorriko zait alaba segituan. Garai batekoek halakoetan aitaren egin eta lore ale bat jaten omen zuten urtarro berriaren bizi-indarra bereganatu nahiez edo, Larreak kontatzen du.

Aitortuko dizuet ere *lore sortzeka* berdintzen ohi dudala urtea; orain, sanjoseak, gero, bata bertzearen segidan, lilipak, kuku-prakak, maraguriak, orki-deak, azafraiak eta, akabera alde horretan, inarra loretan. Eta urteari jirabiran, berriz sanjoseak, berriz lilipak, berriz...

Naturaren sasoiaren borobiltasun horri, alta, ertzak zorroztu dizkiogu kutsatzearen kutsatzeaz eta xurgatzearen xurgatzeaz. Duela bi urte, Urteberri egunerako ikusi genituen lehenak eta “ño, hau bai Urtats arraroa” pentsatu nuen, kezkatuta. Iaz prima behar zukeena hondarra ernatu da eta Domu Santutarako sortu dira gure bazterretan, larrazken betean. Hartan, holako gauza polit ttipi batek nola derrepentean apokaliptasia iragarri dezakeen ohartuta, izuak harrapatu nau. Are udaberri lore garaiz kanpokoan iratzartzea Valentziako ur uher eta kanaberen, plastiko poto, erre-gai orbain eta gorpu lohizatuen egun bertsuetan izan delarik.

Honetan ere apuntatu dut eguna, argazkia egin, klik, inguruetan iragarri, sareetara igo, post, kezka baina; zer azalduko ote diegu orain gure haurrei? Izan zela lore bat udaberri izeneko? Akaso. Izan zela udaberri izeneko urte sasoi bat? Kasu!

Akordatzen zer ikasi genuen izenen iragankortasunaz XX. mende akabera hartan? Nola etxeko Atlas lerden hura irringarri bilakatu zen ohartu orduko? Ba irakats dezagun, eskola liburu eta ipuin oro iraungi aitzinean, badela zaintza bat, baita naturan ere. Ingurumena eskubi-deetan eta justizian eta ukigarriak diren gauzetan ere badagoela. Lurraren izerdia daramala jaten dugun orok. Azaldu ekotopiak egingarri direla eta zuhaitz eta lore denek bere izena badutela. Neguaren ondorenean izan daitezen primaderan liliak; primadera eta liliak. ●

Urte berri goiza



**JOSE IGNAZIO
ANSORENA**
TXISTULARIA

Urte berri goiza Joxe Ansorenak, gure aitona Isidroren anaiak, sortutako biribilketa baten izenburua da, urteberri goizean txistulariek kalez kale jo zezaten asmatua. Doinu horren airean, gaueko kondarrak bilduz joaten ginen, zabor kamioiak bezala. Behin, *Sakito* mozkor galanta aurre-aurrean jarri zitzaidan bidean oztopo eginez. Gelditu, txistua ahotik kendu eta *Fuuuu*, putz egin nion muturrean: "Hurrengoan superboteereekin egingo diat", bota nion serio demonio. Sinetsi eta baztertu egin zen.

Telebistan *rave* famatuen berriek hurren gogoratu: "Hau bezalakorik! Zazpi egun daramatzagu dantzan". Dantza zeri esaten zaion. Haiena, talko hauts, tripi-txo, estasi edo meta guztien laguntza izan arren, ezinaren kulunka errepikakor baldar eta zozoa besterik ez zen.

Umetan, etxean asko izan eta birramona Generosaren ohe berean egiten nuen lo. Etxe azpiko Plaza Berrian mozkorrak entzuten genituenean, euri hotza eta haizea zebiltzala, belarrira xuxurlatzen zidan: "Igualeko ederki gaude". Orduan ez nion ulertzen. Orain bai, ordea. Amonak jakintsuak baitira bizitza eta olgeta kontuez. Etxe ondoko Doroteak biloba neskak berbenara joaten zirenean, horrela agurtzen zituen: "Ongi pasa neskak, baina kartutxera itxita". Fustiñanako Fermina, aldiz, esplizituagoa zen: "*Pasadlo bien, majas... Pero no folléis*".

Natorren harira. Hori dena Urteberriaren iritsiera ospatzeko. Baina urteberriek berritik oso gutxi izaten dute. Hain gutxi ere, non dagoeneko urtarrilaren erdian, 2025a maiztuta dagoen. Gelditu al dira Gaza edo Ukrainako gerrak? Neurrigabeko aberatsek onartu al dute euren ondasun metaketaren jatorrian lapurreta dagoela eta prest agertu arpilatutako mordoak banatzeko? Emakume eta adin txikikoekiko biolentzia amatatu al da? Etorkinak besoak zabalik hartzen hasi al gara? Ez al dugu jada gure festen oinarrian alkohol, zarata eta zarama gehiegi jartzen? Zorri piztuak ez al dira dagoeneko okerrenak?

"Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, adabakiak jantzia behartu eta zerratada handiago egingo bailuke". Mateoren ebanjelioko parabola da. Horixe egin beharko: *Urte berri goiza* jotzen hasi aurretik, partxe txiki eta eskas batzuk jarri zorterik ote dagoen probatzeko. Esaterako, Euskal Herriko Irrintzilari Elkarte berriaren gidaritzapean, kanpaien hotsen orde, irrintzika agurtu urtezaharrak eta berriak. *Sakitok* iritzia: ados, baina aurretik eta ondoren, zurrutadaka galanki eginez.

Esnif... Adimen naturala adabakiak jartzeko ere eskas geratzen denez, artifizialarekin probatu beharko. Ez da beste aukerarik. Baztandarren eran esateko: **doike**. ●

Eskuak



LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

Eskua bularrera eroan, eta bostekoa ukatu dio Siriako agintari berriak Alemaniako Kanpo Arazoetarako ministroari, ministro emakumeari. Modu adeitsuan, baina arbuioa jasan du Analena Baerbock-ek. Aurretik, Al-Golani siriarrak, ordea, luzatu eta astindu dio eskua Jean-Noel Barrot Frantziako Kanpo Arazoetarako ministroari, ministro gizonari. Alemaniara eskuekin zer egin ez dakiela geratu da, ahurrak elkartu eta zerurantz daramatza, adostasun keinu bat eginda, urduri.

Ongietorrian beste hiru gizon ere badaude. Batek ere ez die eskua eman ez

frantsesari, ez alemaniarrari. Hirurek eroan dituzte eskuak bularrera. Guztiak oinez abiatu dira bilera gelara. Atzean lagun andana doa, segizioan. Talde erraldoi horretan, emakume bakarra, interpretea.

Protokolo arduradunek ez zuten aurreikusitako Al-Golani islamistak ez ziola eskua emango Baerbocki? Agintari berriak ezin zezakeen egin beste hiru kideek lez, eta ministro biei bostekoa ez luzatu?

Argi dago Al-Golanik nabarmen laga nahi zuela bere jarrera. Ez da halakorik gertatzen den lehen aldia. Noiz arte jasango ditugu emakumeok mespretxu horiek isilean? ●

Houstonetik Nafarroa Arenara



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Beyoncé futbol amerikarreko partida baten atsedendian, Houstonen (Texas). Kantari estatubatuarra *cowboy* jantzirik atera da estadio erdira. Kapela hegaluzeak tapatzen dio burua, zangoak belaunetarainoko bota luzeek. Soineko zuri urriak, berriz, izterrak eta paparra agerian uzten dizkio, eta gorputzaren gainerako bihurtuneak nabarmentzen. Sentsualitatea dario haren irudiari, haren ahotsari, haren mugimenduei. Gainera, ez dago bakarrik. Harekin batera, figurante tropa dabil koreografian, kantaria bezalatsu desgisaturik. Ehun baino gehiago dira, berrehun agian, neska eta mutil, beltzaranak nagusi, zein baino zein kaxarroago, zein baino zein iradokigarriago haien jarrerak, haien keinuak, haien kulunkak. Kirol emanaldiaren ikusleek kontent dirudite hainbertze metro koa dro larruazalen bistara.

Beyoncérena, noski, ez da salbuespena, araua baizik. Emakume nahiz gizon, pop musikaren adar ugarien gaur egungo ikono gehienen ikuskizunek ageriko erotismoa dute ohiko osagarri. Areago, aparrean dabilzan estiloek areagotu baizik ez dute egin aspalditik heldu den

Beyoncé Super Bowlen inguratu zuten apolo eta venus beltzak ez bezala, sexuz eta sexualitatez gabetuak ziren Mitoaroko maskaratu androgino goitik beheiti tapatuak

joera. Gizonezko heteroek gobernatutako merkatu bateko markatzaletan jo izan da musika jantzi beharrez musikariak erantzi behar hori. Noski, emazteki artista ahaldunduen etorrerarekin apalduko zen delako hipersexualizazioa. Halakoak etorri, ordea, eta deus aldatu ez. Horra *ratchet* estetika, fenomeno honen azken erakusgarria.

Euskal musika ez da uhin horretara igan. Joan den hamarkadaz geroztik eza gutzen ari den irekiera estilistiko nabarmenak ez du berekin ekarri gaur egungo

nazioarteko musikak hain berea duen ezaugarri hori. Agerikoa egin zitzaidan lehengo egunean, telebistan *Mitoaroa* ikustean.

Alde aunitzetatik aipatu eta gorai-patu dira egun hauetan Zetak-ek Nafarroa Arenan eskaini dituen bi kontzertu arrakastatsuak. Hainbertze ertz erakutsi zituzten bi emanaldiek –alderdi sozilinguistikoak eta musikaz kanpokoak barne– ia-ia oharkabean joan baitzitzai-gun kontu bat, beharbada hutsala, baina adierazgarria. Momotxorro, zipotero joaldun, txatxo... inauterietako pertsonaien agerpenak euskal mitologiari gorazarre egin eta ikuskizunaren alderdi bisuala indartu ez ezik, sexualizazioaren arriskuari ihes egiteko bidea gertatu zen Pello Reparazen eskuetan. Beyoncé Super Bowlen inguratu zuten apolo eta venus beltzak ez bezala, sexuz eta sexualitatez gabetuak ziren *Mitoaroko* maskaratu androgino goitik beheiti tapatuak. Bitxiki, arbizuarrak akelarrerako eta deskontrolerako deia egiten zuen bere kantetan, edo amodio gau ahantzezinak gogora ekartzen. Ez dut uste han bildutako milaka jenderen artean inork kontraesanik ikusi zuenik. ●

Nobedadea

Haziak

Zergatik eta nola egin zureak

Miguel Arribas *Kelo* eta Marc Badalen liburu honek azalpen zehatzak ematen ditu gure baratzeetako 60 espeziaren haziak egiteko. 211 argazkirekin osatua.

ARGIA BIZI BARATZEA

26€



azoka.argia.eus (+34) 943 17 35 45

ARGIA Sariak 2025

Euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren sariak

36. EDIZIOA



Urtarrilaren 31n Usurbilgo Atxega jauregian


Ekitaldia osorik ikusgai www.argia.eus webgunean, urtarrilaren 31n 20:00etatik aurrera

LA ROSERAIE OSPITALEA

Bigarren aukera bat gerraren erdian

1937 eta 1940 artean, Eusko Jaurlaritzak bere zerbitzu sozialen bidez, Iparraldeko osasun zentro handiena izango zena zabaldu zuen Bidarten: La Roseraie ospitalea. Helburua zen Hego Euskal Herritik gerraren ondorioz uholdeka zetozen zauritu eta elbarriak arta-

tu eta birgizarteratzea. Ospitaleko egoiliarren artean Federico González zegoen, 20 urteko erandioarra, ofizioz tipografoa, eta beste asko bezala gerrara deitua. Gudari ohi baten, ospitalearen eta han atera zituen argazki batzuen historia harrigarria duzu hau.

 MAURO SARAIVIA



La Roseraie, Bidarte eta Biarritz artean zegoen hotel handi bat izan zen ospitale bezala funtzionatzen hasi aurretik. Ilbarritz jauregia zuen ondoan.

GONZÁLEZ FAMILIAK UTZITA

AItxatuak Bilboko ateetan zirela, milaka euskal borrokalarik Artxandarantz egin zuten 1937ko ekainean, etsaia behin-behinean geldiarazi eta, hala, hiriburua euren esku geldituko zen unea atzeratze-ko. Eusko gudarosteak galera izugarriak izan zituen, eta Federico González ez zen salbuespena izan. UGTn afiliatua eta 48. batailoiko kidea, Artxandako San Roke ermitan tiroz zauritu zuten. Odisea bat bizi behar izan zuen hortik aurrera, egunez egun, errepublikarren eremuko osasun etxeetan artatua izateko. Azkenean La Roseraie ospitalean amaitu zuen, eta zauriak sendatu zitzaizkion arren, beso baten mugikortasuna galdu zuen betirako.

Bigarren Mundu Gerra betean, 1940an, lan mundura itzuli zen Federico, zehazki Bordeleko dinamita lantegira, Alemaniako naziek okupatu zuten arte. Erbesteratuentzat oso une zalantzarria izan zen hura, eta asko etxera itzultzen saiatu ziren. Federicok ere hala egin zuen eta Hendaian Bidasoa gurutzatu zuen beste behin, baina oraingoan alderantzizko noranzkoan.

Mugan, frankistek atxilotu eta Miranda de Ebroko kontzentrazio zelaian sartu zuten. Handik hamabost egunetara aske geratu zen, zaintzapean ordea; horrek esan nahi zuen sarritan Guardia Zibilaren komandantziara joan behar izango zuela ikuskaritza pasatzera. Bederatzi urte luzez egon zen egoera horretan. Kontatzen ari garenak ez du misterio askorik, galtzaileen bandoan geratu ziren beste askoren patu bera da; baina Federicok sekretu txiki bat zeukan gu guztiontzako.

Zortzi hamarkada geroago, 2022. urte hasieran, Federico González semeak – hau ere izenez Federico – Berangon dagoen Burdinazko Gerrikoaren Memoria Museora bisita egin zuen. Haatik, ez zen esku hutsik joan: aitak denbora horretan guztian ganbaran kontserbatutako dokumentazio bat entregatu zuen dohaintzan. Artxibo horretan, gerra garaian eta gerra ostean egindako ibilaren aztarnak gordetzen zituena gudarri ohiak.

Museoaren zuzendari Aitor Miñambresek eskutan izan orduko xeheki aztertu zuen donazioaren edukia, tartean dokumentuak eta argazkiak baitzeuden. Hala, ohartzen da irudiak argitaragabeak direla, eta artikulu hau sinatzen duen Mauro Saravia argazkilari eta kazetariari deitzen dio aurkikuntzaren berri eman eta bere iritzia jakiteko. Ahoa bete hortz geratuko dira: Federico Bidarteko La Roseraie ospitalean izan zeneko argazkiak daude tartean; Jose Antonio Agirreren gobernuak zabalduko

osasan zentro horren inguruko informazio baliotsua eskaintzen duten froga grafikoak dira.

Momentu horretatik aurrera erabakiko dute ondare hori herritarrei erakutsi behar zaiela eta argazki erakusketa bat antolatzeko lanean hasiko dira. Argazkiak 2024ko urria eta abendua bitartean izan dira ikusgai Zarauzko Photomuseumean, *Odisea 1937* izenburupean, eta 2025ean zehar ere hainbat tokitan paratuko dituzte, besteak beste Erandion erakusteko asmoa dute, Federicoren sorterrian.

ART DECÓ HOTEL BAT, ERREPUBLIKARREN ZERBITZURA

La Roseraie hotela 1928ko abuztuaren 14an inauguratu zuten Bidarte eta Biarritz arteko toki pribilegiatu batean. Joseph Hiriart arkitektoak diseinatu zuen, eta arte adituek zioten euskal kostaldeko Art Decó arkitektura multzo ederrena zela. Sei solairu zituen eta 150 espazio, logelak, zerbitzuetarako gelak eta aisialdirako eremuak tarteko. Hala ere, instalazio horiek 1930eko erdialde-ara arte erabili ziren soilik, hotela ez baitzen errentagarria bere akziodunentzat.

Eraikinak ziurgabetasun egoera horretan jarraitu zuen, harik eta 1937ko ekainaren 28an ospitale bezala ireki zuten arte. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak aurretik 100.000 libera ordaindu zituen.

Gaixoak eta elbarriak egoera ezin hobean artatzen zituzten ospitale berrian, hainbesteraino, ezen garaiko prentsak esan baitzuen “euskaldunen antolaketarako dohain hoberenak” adierazten zituela. Testuingurua ere halakoa zen: 1937. eta 1940. urteen artean, gerrak eta gerraosteak euskal herritarren egoera erabat kaskartu zuelarik, 116.000 errefuxiatuk Eusko Jaurlaritzako zerbitzu sozialen laguntza jaso zuten.

La Roseraie ospitalea Juan Otaola getxotarrak kudeatzen zuen, eta haren zuzendari Gonzalo Aranguren mediku zirujaua izan zen, Bilboko urologo jeltzale ezaguna, lehendik ere esperientzia bazuena Basurtuko ospitalean edo Zornotzako odol-ospitale militarrean. 1940an Román Pereiro doktoreak hartu zuen La Roseraieren zuzendaritza. 70 profesionaleko lantaldea zeukaten, emakume zein gizonezkoak, eta urteko aurrekontua bi milioi liberakoa zen.

Jaurlaritzak bere osasan zerbitzuak eskaintzeko Bidarteko esparru hori aukeratu izana ez zen kasualitatea izan.



GONZALEZ FAMILIAK UTZITA

Ospitale funtzioak egiten zituen *La Habana* ontziko erizain eta osasan langileak. La Roseraien ere emakumeek funtsezko zeregina izan zuten errefuxiatuak artatzen.

Ospitaleak izan zuen garrantziaren erakusle dira artatu zituzten pertsonen kopuruak: 804 soldadu ospitalizatu zituzten, baita beste 862 herritar ere, irekita egon zen bitartean

Espazio zabalak zituen bere baitan eta oso egokiak ziren, ospitale bat muntatzeko ez ezik bestelako jarduerak ere egiteko. 1938ko irailean Agirre lehendakariaren eta Telesforo Monzon zein Eliodoro de la Torre sailburuen bisita jaso zuten: “Hemendik aurrera Euskadiko Gobernuaren hiritar izango zarete zuek guztiok”, esan omen zien lehendakariak han zeudenei.

AMAETXEA, TAILERRAK, ABESBATZA...

Ospitaleak hainbat zerbitzu eskaintzen zituen: kirurgia orokorra, ginekologia, amaetxea, medikuntza orokorra, dermatologia, urologia, otorrinolaringologia, odontologia, analisiak eta masajeak. Arreta eta zerbitzu horiek ez ziren soldaduentzat soilik, mugaren hegoaldeko zetozen errefuxiatu zibil guztientzat baizik.

Baina helburua ez zen osasan arreta soila eskaintzea, errefuxiatuak “birgizarteratzen” ere saiatzen ziren haren bidez, bai sozialki eta baita mundu laboralean ere. Hala, eskola-tailerrak antolatu zituzten: espartingintza, zapatagintza, ebanisteria, arotzeria, grabatua, bitxigintza, ortopedia, saskigintza, mekanika eta elektrizitatea... Eta gai akademiko asko ere erakutsi ziren bertan, hasi oinarrizko irakaskuntza, ortografia eta matematikatik, eta mekanografia, kontabilitatea eta marrazketaraino.

Instalazioak hain handiak izanda, beste ekintza batzuk egiteko aukera zeukaten ospitaleko egoiliarrek, igeriketa eta euskal pilota ziren horietako batzuk; baina arrakasta gehien Euskadiko Gerra Zauritu eta Elbarrituen Abesbatzak izan zuen: 75 lagun baino

Odisea baten kronologia

1937ko ekainaren 5a: Federico García Artxanda mendiaren defentsan larri zauritu eta Basurtun zegoen Bilboko Gerra Ospitalera eramango dute. Hiria frankisten esku erori baino lehen, Santanderra garraituko dute, Sardineroko Rhin hotelean zegoen ospitalera.


1937ko abuztuaren 20a: Santanderetik Asturiasera eramango dituzte zauritu guztiak.

1937ko urriaren 10a: Villaviciosako *La Azucarrera* 39. ospitale militarrean ingresatuko dute, ukondoan fisioterapia tratamendua jasotzeko.

1937ko urriaren 21a: Motordun txalupa batean ihes egingo du beste sei lagunekin Ipar Euskal Herriarantz. Baina *Almirante Cervera* gurutzeontzi frankista errefuxiatuen ontziak geldiarazten saiatzen ari da eta txalupa galdu egingo da Bizkaiko Golkoan.

1937ko urriaren 25a: Hiru egun noraezean egon ondoren, frantziar arrantzale batzuek aurkitu eta Arcachonera lagunduko dituzte. Bordele ondoko Bassenen porturaturiko *La Habana* itsasontzi-ospitalera bidaliko dituzte. Bertan, Bernardino Valle medikuak artatuko ditu.

1938ko urtarrilaren 17a: Euzkadiko Gerra Elbarrituen La Roseraie goitizan ospitaleratuko dute.



Federico González lagun batek erretrataturik. Gorputza alde baterantz dauka, besoko elbarritasuna ez nabarmentzeko.

GONZÁLEZ FAMILIAK UTZITA

gehiagok hartzen zuen parte eta konzertu ugari eman zituzten inguruko herrietan.

Ospitaleak izan zuen garrantziaren erakusle dira artatu zituen pertsonen kopuruak. 804 soldadu ospitalizatu zituzten La Roseraien irekita egon zen bitartean, eta beste 862 zibil ere bai, bertan sendatuak izateko. Gainera, denbora horretan 143 haur jaio ziren ospitaleko amaetxean.

EMAKUMEEN LANAREN ISLA

Atzo arte ia ikusezinak izan ziren arren, gaur badakigu emakumeen ekarpena funtsezkoa izan zela gerrak iraun zuen denbora guztian, baita horren ondotik ere. Lekukotza grafikoetan horixe ikus dezakegu, berdin errefuxiatuentzako ospitale bezala funtzionatu zuen *La Ha-*

bana ontzian, nola La Roseraien: emakumeak bereziki zaintza lanetan ageri dira, milaka lagun artatu eta sendatzen laguntzeko inurri lana egiten. Ekarpen hori ospitalearen beraren estatistiketan gelditu da egiaztagiri moduan: artatu zituzten ia 1.700 zauritu eta gai-xoetatik 56 baino ez ziren hil.

Baina Ipar Euskal Herrira erbesterratu ziren emakumeen funtzioa harago doa. Faxistei aurre egiteko esfortzu beliko aliatuan ere parte hartu zuten, esaterako armategietan eta fabriketan lan egiten. Federico Gonzálezek utzi dizkigun argazkiek, sarritan ezkutuan geratu den alde ezkutua eskaintzen dute, laneguna amaitu ostean ateratako irudiak baitira.

Tamalez, argazki horietako askok ez dituzte historia pertsonalak islatzen.

Zein ziren? Zer pasa zitzairen emakume horiei gerra amaitu ondoren? Nola bizi izan ziren Bigarren Mundu Gerraren erdian? Informazioa falta zaigu, eta hutsune hori ez da soilik sortzen Historia normalean gizonezkoek kontatu izan dutelako –gehienetan irabazleen aldekoek kontatu izan dute gainera–; badago beste faktore funtsezko bat: emakumeen ekintzak ez dira baloratu eta neurtu gizonezkoen epikotasun berarekin.

AMAIERA NAZIEN ESKUETAN

Bigarren Mundu Gerra hastean giroa nahasia da oso. 1940ko maiatzean Alemaniak erasoaldia joko du Frantziaren kontra, eta abagune hori aprobetxatuta Jean Ibarnegaray ministro ultraeskuindarrak *Indesirables* deituriko errefu-



Goitik behera eta ezker eskuin: *La Habana* ontziko osasun langilea deskantsurako une batean; La Roseraieko gaixoak eta erizainak talde argazki batean. Medikuetako bat bata zuriz, gaixoak eta elbarriak ondoan dituela; hainbat egoiliar kostaldera egindako ibilaldietako batean; Biarritzeko hondartzan errekupeziaroko igeriketa saio batean. ARGAZKIAK: GONZÁLEZ FAMILIAK UTZITA

Testigantza grafikoa

Federico Gonzálezek utzitako bilduma 24 argazkiz dago osatua. Horietako asko berak egin zituen, beste batzuk bere burkideek. Familia argazkiak amak eta arrebek mantendu zituzten, izan ere, haiei gutunak eta postalak bidaltzeko baliatzen zituen erbesteuririk zegoen gudariak. Baina La Roseraie ospitaleko eta Bordelen lanean izan zeneko argazkiok ez genituen ezagutzen, sekretupean izan zituelako, bere ganbaran ezkutatutako oroitzapen bat bezala.



ATZEALDEA

Tamalez, 1936ko Gerrako argazkiak ikusten ditugunean, askotan ez dakigu norenak diren, argazkia lengoia bisuala baita eta normalean ez baititu idatzizko xehetasunak izaten. Baina Federicoren ariketa periodistiko nabarmentzeko modukoa da alde guztietatik.

Talde-argazkietako seitan atzealdea erabili zuen, bertan agertzen zirenen izenak, ezizenak, abizenak eta sorterrria apuntatzeko. Puzzle bat osatzeko azken pieza da informazio baliotsu hori. Esaterako, gerran desagertutako senideren bat duenak eta inguru horretatik ibili zela susmatzen duenak, bere arrastoa jarraitu dezake.

AURREALDEA

Beste argazki batzuetan, atzealdea ez baizik aurrealdea erabiltzen du Federicok oharrak idazteko. Tokiak eta gertaerak azpimarratzen ditu, argazkia postal bat balitz bezala, baina egiazko helburua bere bizitzaren egutegi moduko bat konpartitzea dela dirudi, egunegun gertatzen zitzaiona kontatzeko.



xiatu errepublikarrak jomugan jarri eta atxiloketa masiboak aginduko ditu. La Roseraietik pasatako gudari eta borrokalari askok Gurseko kontzentrazio esparruan amaituko dute egun horietan. Alabaina, Frantziak berehalako porrota jasoko du nazien aurrean. 1940ko ekainaren 22an errendiziorako armistizioa sinatu eta, orduan, herrialdea bitan banatuko dute -Ipar Euskal Herria naziek okupatutako zonaldean gertuko da-. Horrek frankisten terroretik ihesi zihoazen milaka lagun egoera larrian jarriko ditu berriz ere, eta askok ez dute beste aukerarik izango: edo muga berriz igaro edo bigarren aldiz oraindik urrunago erbesteratu.

Askok Britainia Handira edo Hego Amerikara ihes egitea erabakiko dute orduan, eta beste asko etxera itzuli-

**Zein ziren emakume horiek?
Zer pasatu zitzaion gerra
amaitu ondoren?
Informazioa falta zaigu,
haien ekintzak ez direlako
baloratu eta neurtu
gizonezkoen epikotasun
berarekin**

ko dira, frankisten errepresioa jasan beharko dutela jakinda ere, Federico Gonzálezek gertatu zitzaion bezala. Baina izan ziren, baita ere, frantziar erresistentziaren zerbitzura jarri zirenak, egunen batean euren aberria berreskuratzeko esperantzarik galdu gabe borrokan jarraitu zutenak.

La Roseraiek osasun-zentro bezala jarduera eten behar izan zuen, eta alemanek 1940ko ekainaren 27an okupatu zuten eraikina, armistiziotik egun gutxitara. Federico González 2006ko maiatzaren 1ean hil zen 89 urterekin, baina ondare moduan utzi zizkigun erresilientzia eta eskuzabalatasuna oroitaratzen dituzten argazkiok, belaunaldi berriek ez dezaten ahaztu handik igarotako errefuxiatuei bigarren aukera ilaun bat eskaini zitzaizela. ●

EUSKAL SELEKZIOA

Ofizialtasuna lortzeko bidean, zirrikitua zabalik?

Euskal selekzioaren ofizialtasuna lortze-
ra bidean urratsa eman du Nazioarte-
ko Euskal Pilota Federazioak, Euskadiko
Federazioa eskubide osoko kide izatea
onartuta. “Lorpen historikoa da”, zioen
Euskadikoak pasa den abenduaren 28an,
baina zuhurtziaz mintzo zen, Espainiako
Kirol Kontseilu Gorenaren (CSD) baiezkua
falta delako oraindik, eta susmoa zuelako
federazioaren batek erabakiaren kontrako

alegazioak aurkeztuko zituela. Ez zebilen
oker. Gutxira iragarri zuen Espainiako Fe-
derazioak helegitea jarriko duela. Euska-
dikoak ez du uste CSD-k ezezkoa eman-
go duenik, baina alegazioek zer ekarriko
duten jakin arte ez dago ezer ziurtatze-
rik. Partidarik konplikatuenak, askotan, ez
dira pilotalekuan jokatzeko, bateko zein
besteko kirol erakunde, alderdi politiko
edota abokatuen bulegoetan baizik.

 JON TORNER ZABALA

Zalantzarik bazegoen kirolak, selek-
zioen aferak argiki, politikarekin
duen loturaren inguruan, egunotan
ikusitakoek hamaikagarrenez demos-
tratu digute elkar hartuta doazela sarri.
Erakutsi diguten bezala isil antzean lan
egitea komeni dela batzuetan, erbia al-
txatu bezain pronto hasiko direlako ba-
tzuk amorratuz zaunka, erbia bailitzan
zazpi buruko munstro arriskutsua.

Abenduaren 28an Iruñean eginda-
ko biltzarrean, Euskadiko Euskal Pilota
Federazioa eskubide osoko kide izatea
onartu zuen nazioartekoak, eta nahastu
dira batzuen poztasuna eta besteen ha-
serra. Txaloka batzuk, erabakiak esan
nahi duelako euskal selekzioaren ofi-
zialtasuna lortzeko bidean urrats han-
dia eman dela, litekeena baita, bere his-
torian lehenbizikoz, 2026ko Munduko

Pilota Txapelketan parte hartzea, eta
orduan ezin bada, 2030ekoan, zeina Bil-
bon eta Gernika-Lumon jokatu den.
Biraoka besteak, Espainiako presidente
Pedro Sánchez “nazionalisten nahietara”
makurtu delako, ateak zabaldua euskal
selekzio “independente” bati.

EUSKADIKO FEDERAZIOA, ZUHUR BAINA BAIKOR

2023ko urtarrilaren 1ean sartu zen inda-
rrean Kirolaren 39/2022 Legea. Doku-
mentu horretan dago -48. artikulua
2. puntua- pilota selekzioaren ofizialta-
suna ekar dezakeen pasarte. Hitzek hitz
dio: “Kirol federazio autonomikoek zu-
zenezan parte hartu ahal izango dute na-
zioartean, baldin eta nazioarteko federa-
zioak haren parte hartzea aurreikusiko
balu”. Legeak jasotzen dituen bi baldin-

tzetako bat behintzat bete beharko dute
horretarako: “Autonomia erkidegoan
historikoki eta sozialki errotuta dauden
kirol-modalitate edo espezialitateak
izatea; edo Espainiako federazioa eratu
baino lehen, erkidegoko federazioa jada
nazioarteko federazioko kide bazen”.
Hain justu, erroetara jota egin du bide
pilotak, eta federazioaren sortze-urtea
oinarri hartuta egin dezake gauza bera
surfak, arreta ia osoa bereganatu duten
bi kirolak nabarmentzearren.

Azken hitza, baina, erakunde espai-
narrrek dute: “Autonomia erkidegoetako
federazioek nazioarteko txapelketa ofi-
zioletan parte hartu ahal izateko, Kirol
Kontseilu Gorenarekin (CSD) akordioa
lortu behar dute”, zeina, gogora deza-
gun, Espainiako Gobernuaren menpeko
erakunde den.

Agian horregatik mintzo da zuhurtziaz baina baikor samar Euskadiko Euskal Pilota Federazioko presidente Gotzon Enbil, CSD-ren erabakiaz galdetuta: “Ez dut uste ezer egin ahalko duenik, Nazioarteko Federazioan eskaria egin genuenean, Kirol Lege berriak onartzen gaituela esan genuen, eta, beraz, eskaera egiteko pausoa emango genuela”, esan dio *Naiz*-eko kazetari Oinatz Aizpururi. Eta gehitu: “Kirol Kontseilu Gorenak ez zigen esan hori egiterik ez genuela, gure prozesua jarraituko zutela baizik. Legeak baimentzen digu, Nazioarteko Federazioak onartu gaitu; Espainiako Kirol Kontseilu Gorenak bazkideak gabela besterik ezin du esan”.

Dena den, Euskadiko Federazioak ohartarazi zuen: “Litekeena da federazioaren batek helegitea jartzea”. Izenik ez zuen eman, baina begirada guztiak Espainiakoari zuzendu zitzaizkion. Are gehiago ikusita nazioartekoak abenduarren 28an Iruñean egindako batzarrean zer gertatu zen. Julián García Angulori, Espainiako Federazioko presiden-

Litekeena da, bere historian lehenbizikoz, euskal selekzioak 2026ko Munduko Txapelketan parte hartzea, eta orduan ezin bada, 2030ekoan, zeina Bilbon eta Gernika-Lumon jokatuko den

teari, ez zioten parte hartzen utzi, Nazioarteko Federazioak haren aurkako espedientea duelako zabalik, Arabiako Euskal Pilota Konfederazioak jarritako salaketa bat medio, ordezkarri espainiarrik arabiar herriaren kontra egindako adierazpen iraingarriengatik. Berez,

berari kendu zion Nazioarteko Federazioak selekzioen aferaren inguruan bozkatzeko eskubidea, ez ordea Espainiako Federazioari, zeinak bazuen aukera Kudeaketa Batzordeko beste hiru kideetako bat ordezkarri izendatu eta hark botoa emateko. Baina, Jorge López bidali zuten Iruñera, García Anguloren iloba, eta hark ez zeukan delegatu-iziera ofiziala. Horregatik ez zioten batzarrean sartzen utzi.

Nazioarteko Federazioak nabarmendu duen moduan, bozketan onartutako erabakiak gehiengo zabalez hartu zituzten. Aldeko botoa eman zuten Argentinak, Venezuelak, Mexikok, Frantziak –bai, Frantziak ere bai– eta Peruk. Txilek bakarrik bozkatu zuen proposamenaren kontra, eta Costa Rica abstenitu egin zen. Espainiak boz ponderatu kopuru handia du, litekeena da bozketan parte hartu izan balu ezezkoak irabaztea, eta horrek are gehiago sumindu ditu. “Hau diktadura bat da”, zioen Lópezek, aretora sartzen utzi ez ziotenean.



2022ko urriaren 14an, Miarritzen jokatu zen Munduko Txapelketaren atarian, “euskal pilota selekzioaren aldeko manifestua” aurkeztu zuten Durangon hainbat kirolari eta eragilek. Endika Barrenetxeak (erremontea), Laura Saezek (gomazko paleta), Ibai Zabalak (esku pilota) eta Iera Agirrek (esku pilota) irakurri zuten agiria.

Espainiako Federazioaren haserreari erantzunez, Nazioarteko Federazioko presidenteak, Miarrizten jaio eta mexikar naziotasuna duen Xavier Cazabounek, konponbidea bilatzera deitu ditu alde guztiak: "Konplotaren eta protagonismoaren termostatoa jaitsi behar da, eta gauzak diren bezala ikusi. Hautsa alfonbraren azpian ezkutatuta ere, ez da desagertuko. Arazoa desagertu egin al da? Ez. Egin beharko luketen lehenbiziko gauza da interes partidistak alboratu eta mahaiaren bueltan biltzea, 30 urte iraun duen gatazkari aterabidea emateko. Gure kirolak behar duena batasuna da". Adierazi du federazio baten jarrerak ezin duela nazioartekoaren ibilbidea baldintzatu, eta gehitu: "gure kirolak 'euskal pilota' du izena".

"ESPAINIAREN ESKUBIDEAK BABESTUKO DITUGU"

Espero zen moduan, Nazioarteko Pilota Federazioak Euskadikoa onartu ostean

Kirolaren Legeak arau-hauste oso larritzat jotzen du "Estatuko selekzioen deialdietara ez joatea, eta horietan parte hartzeko hautatu diren kirolariak selekzio nazionalaren eskura ez jartzea"

eskubide osoko kide gisa, Espainiako kirol-erakunde, alderdi politiko edota hedabideek erabakiaren aurkako oldarraldia hasi dute, nork beretik presioa eginez. Espainiako Pilota Federazioak, esaterako, iragarri du helegitea jarriko duela "bidegabekeria nazionalista" horren kontra.

"Eskura dauzkagun lege-erreminta guztiak baliatuko ditugu Espainiaren eskubideak babesteko", adierazi du Julian García Angulok, Nazioarteko Euskal Pilota Federazioaren prozedura "irregularra eta iluna" izan dela iritzita. Espainiako Federazioak plazaratutako oharrean irakur daitekeenez, Auzitegietan eta Kirola Arbitratzeko Epaitegian (TAS) errekurrituko dute erabakia. Bide horretan, Espainiako Batzorde Olinpikoaren eta Espainiako Kirol Elkartearen (ADESP) babesa izango du.

Espainiako Kirol Kontseilu Gorena ere ohartarazi du Espainiako Federazioak: "Zuhurtasun-irizpidea erabiliko duela espero dugu, eta ez duela Nazioarteko Federazioaren batzarrak hartutako erabakirik berretsiko, legezko instantzia guztiek haien hitza plazaratu arte".

Erabakia ezagutu bezain pronto hasi zuen gurutzada Espainiako Federazioak. "Pedro Sánchezek ez zeukan



JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Euskal Selekzioak eta Mexikok bi partida jokatu zituzten, palaz eta eskuz, pasa den abenduan Hernaniko pilotalekuan.



Goiko eta Laduche, bi pilotari euskaldun, Espainia eta Frantziako taldeekin lehian. / AFP

KIROLARIEK ZEIN SELEKZIOREKIN JOKATU AUKERATZERIK IZANGO AL DUTE?

Gaur gaurkoz, Euskadiko Federazioaren izenean ari diren selekzio bakarrak joko zuzeneko pilota kirolletakoak dira, baina aurrerantzean modalitate denetan eta munduko txapelketa guztietan parte hartu ahal izango luke selekzioak, Euskadiko Federazioari zuzendari tekniko Aitor Erauskinen ARGIAri azaldu dionez. Nazioarteko Federazioak barnebiltzen dituen espezialitateak dira: esku-pilota, zesta punta, pala motza, xarea, frontball-a, frontenisa, eta paleta, larruzkoa zein gomazkoa.

Hasiara batean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako pilotariek soilik osatuko lukete euskal selekzioa. Galdetu diogu Erauskin, ea Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko pilotariek aukerarik izango luketen lizentzia Euskadiko Federazioan eskatu eta euskal selekzioarekin jokatzeko. "Pilotariek, berez, nahi duten Federazioarekin aterazakete lizentzia", azaldu digu. "Jaengo [Andaluzia] pilotari batek ere jo dezake

Euskadikora, baina hortik aurrerakoak ez daude araututa. Nazioarteko Federazioarekin hitz egin beharreko zerbait da, gerta daitekeelako nazioarteko txapelketetan Espainiako Estatuko bi federazio lehiatzea, eta hori ez dago erregulatuta". Helegiteek zer ekarriko duten ikusi ostean arautu beharko da zeintzuk diren Euskadirekin jokatu duten pilotariak. Halaber, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako federazioen jarrerak ere baldintzatuko du etorkizuna.

Hain justu, Nafarroako Federazioak presidente berria du urtarrilaren 8az geroztik, Andrea Lusarreta labioarra. "Pilota asko politizatu da, kirola tresna politikoa ere badelako", esan dio Luis Guinea *Diario de Navarra*-ko kazetariari, euskal selekzioaren aferaz galdetuta: "Iritsi berriak gara, non gauden ezagutu nahi dugu, baina oso kontziente gara zein momentutan sartu garen Federazioa, baita gure eskumenak kirol arloari dagozkioa ere", esan du Lusarretak,

aferaren bueltan posizio argirik erakutsi gabe.

ZIGORRAK

Orain arte sekula ez da gertatu pilotari batek zein selekzioarekin jokatu duen aukeratu behar izatea. "Suposizioak besterik ez dira guztiak", zioen 2022ko urriaren 26an La Sexta telebista kateko esatariak, Kirolaren Lege berria hizpide hartuta. "Ulertzen da atletak lirakeela aukeratuko luketenak, baina, horretarako, Kirolaren Legea aldatu beharko litzateke, gaur egun, federazio batek deitzean joaten ez bazara, zigortu egin zaitzakelako".

Are, 1990ko legeak kirolarientzako zigorrak jasotzen bazituen, lege berriak klubentzako isunak ere aurreikusten ditu. 104. artikulua, adibidez, arauhauste oso larritzat jotzen du "justifikaziorik gabe Estatuko kirol-selekzioen deialdietara ez joatea, eta horietan parte hartzeko hautatu diren kirolariak selekzio nazionalen eskura ez jartzea".

inolako eskubiderik pilota EAJri eskaini eta kirola politizatze", idatzi zuen Angulok sare sozialetan, erreferentzia eginez "historikoki eta sozialki errotutako kirolak" aipatzen dituen zuzenketari – Kirolaren Legean jasota dagoena –, zeina PSOEek eta EAJk adostu zuten.

IKA-MIKA POLITIKOAK

Laburrean azaldu aldera, Espainiako Diputatuen Kongresuak 2022ko azaroan onartu zuen lege hura –aurrekoa 1990ekoa zen–, aldeko 166 eta kontrako 157 boto, eta 18 abstentziorekin. Alde bozkatu zuten, besteak beste, PSOE-k eta EAJk; kontra PPK eta Voxek; eta abstentitu egin ziren ERC, EH Bildu eta BNG. Hiru alderdiok, baina, aipatu zuzenketaren alde bozkatu zuten.

EAJk "oso pozik" hartu du Euskadiko Pilota Selekzioak ofizialtasuna lortzeko Iruñean eman duen "behin betiko urrats historikoa". Alderdi jeltzalearen hitzetan, "erabaki horrek, kongresuko eta senatuko Euskal Taldeak 2022ko urrian Kirolaren Legean egindako aldaketarekin batera, ahalbidetzen du euskal pilotariak Euskadiko kamiseta janztea eta nazioarteko lehiaketa ofizialean ikurrinarekin desfilatzea". Eta gehitu: "EAJ-k konpromisoa hartzen du ahalik eta kirol-diziplina gehienei ofizialtasunerako bidea egiten laguntzeko". Imanol Pradales EAeko lehendakariak, halaber, adierazi du "berri bikaina" dela "pilotarentzat, euskal kirolarentzat baita euskararentzat ere". Nazioarteko Federazioaren txapelketetan euskara hizkuntza ofiziala izango baita, gaztelaniarekin, ingelesarekin eta frantsesarekin batera.

EH Baik eta EH Bilduk "baikortasunez" jaso dute Nazioarteko Federazioaren erabakia, gaineratu arren "lanean jarraitu beharra" dagoela, Euskal Herri osoa aintzat hartuko duten selekzioak lortzeko. Bestalde, Kirolaren Legea aldatzea eskatu du EH Bilduk, Mertxe Aizpurua diputatuak duela bi urte pasatxo esandakoa berretsita: "Ez dugu Espainiako selekzioarekin jokatzera behar izan duen Kirolaren Lege hau babestuko; jokatzeari uko egitea arau-hauste larritzat hartzeko mehatxu esplizitua egiten du, zeinak isunak ekar ditzakeen, lizentzia galtzea kasu".

Juan Luis Soto PSOEko diputatuak esan du Kirolaren Lege berriak ez duela "Espainia apurtzen", batzuek sinetsarazi nahi duten moduan. "Alderantziz, kirola gizarte kohesioko tresna bihurtzen da". Aldiz, gogor mintzatu dira PP eta UPNko



ANDONI CANELLADA / FOKU

Gotzon Enbil, Euskadiko Euskal Pilota Federazioko presidentea, zuhurtziaz mintzatu da, nahiz eta uste duen Espainiako Kirol Kontseilu Gorenak ez diola Nazioarteko Federazioaren erabakiari trabarik jarriko.

"Bide baten emaitza da. Ikusi da kirolariak, gizarte zibila eta arduradun politikoak norabide berean doazenean posible dela"

Gu ere bai! plataforma

ordezkariak. Nafarrentzat gertatu dena "bidegabea" da, eta Esther Martínez EAeko PPko idazkari nagusiak adierazi du EAJ eta Pedro Sánchezen "azken azpijokoak" euskal pilotari kalte egiten diola, ondoren gehitzeko: "politikakeria ez da kirola", gustukoak ez diren ekintzak gutxiesteko erabili ohi den esaldia.

URTETAKO LANA

"Bide baten emaitza da", adierazi dute euskal selekzioaren alde diharduen Gu ere bai! egitasmoko kideek Euskadi Irratian. "Ikusi da kirolariak, gizarte zibila eta arduradun tekniko eta politikoak norabide berean doazenean posible dela. Honek kirolari egiten dio mesede, herriari". Dena den, nazioartean lehiatzeko aukera gauzatzekotan, "euskal lurralde guztietako pilotarien parte-hartzea"

SURFA, KIROL OLINPIKOA

Surfa kirol olinpikoa da. Nazioarteko Batzorde Olinpikoak arau propioak ditu, eta horien arabera euskal selekzioak ezingo luke Joko Olinpikoetan parte hartu, Nazioarteko Surf Federazioaren eta Kirolaren Kontseilu Gorenaren oniritzia lortuta ere, Batzorde Olinpikoak NBek aitortutako nazioak soilik onartzen dituelako.

Hawaiko surf federazioaren kasua berezia da. 2020a arte talde independente gisa lehiatzen zuen nazioartean, AEBetako estatua izanik ere, surfa bertan jaito izana aitortzen zaiolako. Duela bost urte, ordea, surfa kirol olinpiko bihurtu zen, eta, ondorioz, Joko Olinpikoetan ez ezik, Munduko txapelketetan ere ezin du lehiatu, hauetan lortutako puntuazioek Jokoetara sailkatzeko balio dutelako eta, hortaz, AEBek ordezkari izango izango luketelako.

FUTBOLA, HARRI GOGORRAGOA

Euskal pilotan euskal selekzioa ofiziala izan dadin zenbat itzulinguru eman behar den ikusita, nekez imajina daiteke futboleko selekzio propioa izatea, besteak beste Europako (UEFA) eta Nazioarteko (FIFA) organo gorenen estatutuek ez dutelako horretarako bide ematen. UEFAk dio eskaera luza deza-keela soilik NBek independente gisa onar-tzen duen herrialde bateko federazioak. FIFAk independentzia eskuratu ez duen lurralde bateko federazioa ere onar dezake, baina horretarako lurralde hura parte den herrialdeko federazioaren baimena behar du. Eta, Espainiako Federazioak, sekula ez du horretarako borondaterik agertu.

Gai honen bueltan, maiz aipatzen dira Irlanda Iparraldeko, Eskoziako, Galeseko eta Ingalaterrako selekzioak, Erresuma Batuko herrialdeak diren heinean. Lurralde horietako federazioak FIFA eta UEFA baino lehen sortu zirelako dauzkate selekzio propioak.



ALBERTO ELOSEGI

Jose Angel Iribar eta Bittor Alkiza, euskal futbol selekzioak 1998an Uruguairen kontra Anoetan jokatuak partidan.

bermatu beharko litzatekeela nabar-mendu du ekimen herritarrak.

Bide baten emaitza. Urteak daramatza Euskadiko Federazioak ofizialtasuna lortzeko borrokan; urteak eman zituen borrokan ESAIT plataformak -2015ean bere bidea amaitutzat eman zuen arte-; gazteagoak dira Gu ere bai! ekimena eta Euskal Herriko euskal pilota selekzioaren aldeko mugimendua (EHEPSAM).

2020ko martxoan aurkeztu zuten Gu ere bai! egitasmoa Bilboko San Mames estadioan -haren sorrera-manifestua 750 kirolarik sinatu zuten-; 2022ko urriaren 14an, Miarritzen jokatu zen Munduko Txapelketaren atarian, "euskal pilota selekzioaren aldeko" agiria aurkeztu zuten Durangon hainbat kirolari eta eragilek -euskal federazio guztietako ordezkariak tartean-; 2024ko ekainean, Hendaiako Beltzenia pilotalekuan egindako ekitaldian, 50 pilotarik iragarri zuten Espainiako eta Frantziako selekzioekin jokatzeari uko egin ziotela -EHEPSAMeko kideak bertan ziren-; eta urtarrilaren 11n Euskal Selektzioa Orain elkarteak I. Biltzarra egin du Lapurdiko Makean. Amaia Larralde eta Eñaut Etxeberria bozeramaileek



MONICA DEL VALLE

ESAIT Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldeak antolatuta, euskal selektzioaren aldeko lasterketaren lehen edizioa egin zen 2000. urtean Bilbon. Euskal Herriko kirol selektzioek nazioartean lehiatzearen aldeko aldarrikapena plazaratzea zuen helburu ekimen hark.

azaldu dute "euskal pilota selektzioaren ofizialtasuna lortzea" duela helburu Ipar Euskal Herriko plataforma berriak.

Euskal selektzioaren aldeko olatuak indarra galdua zuen azken urteetan, eta

ezkortasun puntua ere sumatzen zen esparru batzuetan, baina hainbat kirolari, erakunde eta kolektiboren inurri lanari esker, urtetako aldarrikapenak bizirik dirau, eta oso tartean behin izanik ere, batzuetan lortzen dira tantoak. ●

“ ”

Guarania patronatuta egon da, kartzelatuta, esklabotuta

Alex Pancho Robles

Hizkuntza aktibista guarania

Garabidek antolaturik, Hizkuntzak Biziberritzeko Formazio Programaren barruan izan zen gurean Alex Pancho Robles (Camiri, Bolivia, 1995) iragan urrian. Guarania da, eta guaraniera hiztuna. 8 milioi hiztun inguru dira Bolivia, Brasil, Argentina eta Paraguain barrena, hizkuntza ofizialaren

estatusa du Bolivian eta Paraguain, eta zenbait eskualde jakinetan beste bi herrialdeetan. Kazetaritzan eta komunikazioan aditua da gure solaskidea. Boliviako petrolio-hiriburu omen da Camiri, baina Pancho Roblesen bidea ez du olio beltzak gidatzen, guarani izateak baizik.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC-BY-SA

Camirin bizi zara, baina ez hirigunean bertan, komunitate indigena guarani baten baitan baizik.

Eta inportantea da hori azpimarratzea. Itanamicua komunitatean bizi gara; 360 familia gara bertan. *Ita* da harri, *nambi* da belarri, eta *cua* da zulo. Camiri ondoan bizi gara, Parapeti ibaiak gaitu bereizten. Hiritik bertara bizi gara, baina apartealdi berean, eta horrek gure kultura eta identitatea indartzen laguntzen digu. Garaian, gure buruzagiek lortu zuten bizi garen tokian eskola irekitzea. Bertan ikasten dugu unibertsitate arte.

Komunitatean bizi zaretela, zeuen kultura-hizkuntzei eusteko aukera handiagoa, ala?

Sasoi batean, bai, zeren argindarra sar-

“ ”

Guraso askok indar egin nahi dugu eskolan ere gure seme-alabek guaranieraz hitz egin dezaten

tu zenean aldaketa handi bat gertatu baitzen gure komunitatean. Argindarra sartzeak eraginik franko izan zuen gure hizkuntzaren egoerari dagokionean, aurretik ez baitzegoen telebistarik, ez bestelakorik. Eta, zinez, telebistarekin batera hasi zen gibelatzen gure kultura,

belaunaldiz belaunaldi transmititutako jakitatea, ipuinak eta beste. Izan ere, ordu arte, ohitura eta legea ziren ilundu orduko denak suaren ingurura biltzea, adinekoak elezaharrak kontatzen hasteko, eta jolas egiteko. Argindarra sartu zutenean, ordea, sartu zen telebista gure etxeetara, eta harixe begira hasi ginen denok, ipuin zaharrak-eta baztertuta. Eta agur mitoak!

Gurean, telebista baino lehen, irratiak eragin omen zuen galera hori.

Eta areago da orain, zelularrak [telefono mugikorrak] sartu direnetik.

Ikus-entzunezkoetan ari zara lanean, zeure komunitatearen alde.

Bai. Ez naiz unibertsitatean gradu bat ikasia, baina hainbat formakuntza-ikastaro



egina naiz Cochabamban, Prestakuntza eta Errealizazio Zinematografikoko Zentroan (CEFREC). Irabazi asmorik gabeko elkartea da, ikus-entzunezkoak sustatzen ditu, landa eremuko komunitate indigenen errealitatea erakusteko asmoz. Zentro horretan, hainbat komunitate indigenetako kideak trebatzen dira, komunikazioan, eta hortxe ikasi nuen.

Komunitate indigenen errealitatea erakustea da zentro horren helburua, beraz?

Komunitate indigenetako kideei geure gisako komunikazioa nola egin erakustea, geure ikuspegi eta kosmobisio propioetik, alegia. Geure lurraldeei buruzko erreportajeak-eta egiten ditugunean, geure begirada propioa baliatzea. Ohiko hedabide konbentzionalek egiten ez dutena, alegia. Haiek, edo ez dira guregana etortzen, edo etortzen direnean ez den gauzarik kontatzen dute. Niri, komunikazio arloa interesatu zitzaidan, prestakuntza ikastaroa burutu nuen, eta horretan ari naiz, kazetaritza eta komunikazio indigena praktikatzeko, norberak sentitzen duena adierazteko ahalmena lantzen, *ñe'e*-ren [hizkuntza guaraniaraz] bidez, hitz eginez.

Guaraniaraz lan egiten duzu, huraxe duzu ama hizkuntza.

Guaraniaraz jaio nintzen, gurasoek hala xe hitz egiten baitzuten eta. Diskriminazioz ere probatu zuten ez gutxi. Gurasoak patronatuan [etxaldean] hazi ziren, guaraniaraz mintzatzen ziren, patrioiak erreprimitu egiten bazituen ere, guaraniaraz hitz egitea galaraziz. Baina eutsi egin zioten eta, hori ez ezik, halako batean patronatu hartatik ihes egin zuten. Oraingo komunitatean gorde zituzten beren buruak, eta izan ziren libre: beren kulturaren arabera bizi ahal izan ziren. Harrezkero, gezurrik esateko beldurrik gabe esan nezake gurean, Pancho Robles familiaren baitan, kulturaren sustatzaile kartsuak garelako, gurasoek egindako bide horren oinarriak. Guztizko aldaketa izan zen patronatutik komunitate indigenaren baitara ihes egitea.

Egundaino halakorik aditu gabe nengoen.

Halaxe gure egiak! Gurasoek ez zuten ikasketarik egin ahal izan, ez irakurtzen ez idazten ikasi zuten, patrioiak ezer ikastea galarazi zielako, eta ezer ikasten utzi izan balie ere, gaztelaniaraz beharko zuketean, guaraniera zeharo baztertuta. Zer



Comemote

“Unibertitatean, arbelera joateko agindu zidan irakasleak. Kalkulu problema bat zen ebatzi beharrekoa. 150 ikasleren aurrean nintzen, urduritu nintzen, eta oker baliatu nuen matematika zeinuren bat. Eta irakasleak: ‘Non ikasi duzu, ordea?’. ‘Itanambikuan’. Eta irakasleak, berriz: ‘Non, gero!?!’. ‘Itanambikuan’. Eta, irakasleak, orduan: ‘A, hargatik ez dakizu ezer! Lehen Hezkuntzara itzuli beharko zenuke, ikastera!’. Ez nekien neure burua non ezkutatu. Landa eremuko nintzelako, guarania nintzelako... Gogotik umiliatu ninduen. Baina ez nion barkatu. ‘Honexek ahaldunduko naiz, gero! Erakutsiko zioat nik irakasle horri!’. Eta halaxe egin nuen, hurrengo azterketan kalifikazio ona ateratu, gu ere bagarela erakutsi denei! Eta, oraingok, hirikoak uste du guaraniok ez garela gauza. ‘A, hori guara(nia) da! Landakoa!’, hots egiten dute, mespretxuz. Edo, ‘hori *comemote*-a da!’. *Mote*-a, artoa da. Arto-jaleak garelako, alegia”.

edo zer irabazi genuen, hala ere, zeren ni, esaterako, komunitatean bertan jaio nintzen. Gurasoak hara heldu zirenean, zazpi familia baizik ez ziren komunitatean. 1960ko hamarkadako kontuak dira,

eta ez da, bakarrik, nire gurasoen kasua, hainbat lagunengatik baizik. Hainbat komunitatek egin zuten bide bera. Guarania patronatuta egon da.

Patronatuta?

Kartzelatuta, esan nezake, esklabotuta, baina, gure arbasoek, ezkutuan ere, kultura-hizkuntzei bizirik eusten asmatu zuten. Egia da patronatueta kultur erritualik ezin bete zutela. Liberatu zirenean besterik izan zen. Jakin ahal izan dudanez, bata patronatutik eskapatzen zelarik, beste bati ihes egiten laguntzen zion. Horrelaxe ibili gara guaraniok. Oraingok orain, instituzioen laguntzari esker, dokumental bat egin dugu berrekitze territorialari [patronatueta komunitate indigenetara jotzea] buruz, eta hainbat lekukotasun mingarri bildu ditugu. Fikzio film bat ere egin dugu, historia horren inguruan. Hainbat material dago gaiaz, gazte garenontzat oso inportantea da gure aurrekoen testigantzen berri izatea.

Zer kontatzen dute, esate baterako?

Gure izebak, esaterako, salatzen zuen patrioiak ez ziotela estudiantzen utzi: “Patrioiak ez zidan utzi ezer ikasten, eta ezin izan dut ikasi irakurtzen ez idazten”. Dokumentalean esaten du horrek ezgaitasun sentiarazten duela, iruditzen zaiola seme-alabei bizi bat hobea emateko gauza ez dela izan. Orain besterik da, oraingo jendearen seme-alabek ikasketak egiten baitituzte, guarani izatea, eta guaraniera bera, ezertan baztertu gabe. Horrelaxe ari da, ezarian-ezarian, liberatzen guarania.

Guaranieraz ikasketak gauzaterik bada, egun?

Legez, bai. Baina, hamaikatan, paper erreka da: paperean idatzia den legea ez da aplikatzen. Eta, bestalde, errelato bat eraiki dute, eta nagusitu da hein batean, zeinaren arabera guaraniera atzerapena den. Horixe sartu diote buruan guraso askori, beren umeek gaztelania ikasi behar dutela, geroko geroan aukera handiagoak izango dituztela gaztelaniaz, ez guaranieraz. Ez pentsa, errelatoa ez da debaldetan zabaldu, nik neuk ere latz gogoetatu behar izan dut neure ondorioak ateratzeko.

Zein ondorio, esan nahi duzu?

Ama hizkuntza dela gauzarik inportantea. Eta holaxe.

“Eta holaxe”?

Boliviako hizkuntza nagusia gaztelania da, arlo gutiz gehienetan izan ere. Guaranierak lege aitortza du, legea betetzen ez bada ere. Hezkuntza sisteman bertan, nahiko lan. Seme bat dugu Lehen Hezkuntzako adinean, guaranieraz kantu-rik-edo irakasten ote dieten jakin nahi nik, eta esan izan diot: “Ea, kantatu zer edo zer guaranieraz”. Eta ez daki. Gaztelaniaz bai, guaranieraz ez. Horrek garbi erakusten du zer pisu duen guaranierak gure hezkuntza sisteman. Hala ere, askotan, irakaslearen esku dago. Ez irakasle denek balioesten dute guaraniera. Irakasleak izan litezke guaraniera hiztunak, baliteke guaranieraz ere irakastea, baina beti gaztelania lehenetsita.

Zeuen komunitatean ere, ez duzue zeuen hezkuntza sistemaren gaineko eskurik?

Komunitateko buruzagiek esaten dute goi instantziek agintzen dutena bete behar dutela. Komunitatea estatutu ba-

“ ”

Telebistarekin batera hasi zen gibelatzen gure kultura

tek gidatzen du, eta guraso askok indar egin nahi dugu eskolan ere ikasleek, gure seme-alabek, guaranieraz hitz egin dezaten. Ez dago hizkuntza biziberritzeko beste biderik. Transmisioa ziurtatu beharra dago. Ildo beretik, Proiektu sozio-produktiboak (PSP) lantzen saiatzen gara, artisautzaren, buztzingintzaren eta gainerakoen bidez transmititzen den arbasoen jakitate nagusia berreskuratu ahal izateko.

Beste ezein komunitetako kideekin loturirik baduzue?

Nik neuk, bai. Hizkuntzaren aktibista gazte naizenez gero, beste hainbat komunitaterekin harremanetan jarrita nago, egin dugun film dokumental horren bidez, batik bat. Eskariak ere jasotzen ditut filma batean eta bestean erakustera joateko, eta halaxe ohartu naiz komunitate bakoitzak bere historia propioa duela, baina denek ere liberatzeko bidea hartu dutela. Gure filmak ere izen horixe du: *Gu+randyu*, “liberazio bidea”.

Nola bururatu zitzaizuen film dokumental hori egitea?

Komunitateko buruzagiaren eskaria izan zen. Lekukoak adintsuak zirela ohartuta, haien testigantzak betiko galduko ziren kezkatzen, filma egiteko proposamena egin ziguten; “egin beharra dago!”, geure buruei esan, eta egin genuen. Harro nago, lan bikaina, eskoletan

eta hainbat tokitan erakutsi ezinik ez dugu, gogoetari eragiteko. Guaranieraz egina dago, azpitoluak ditu gaztelaniaz. Hasi berria naiz ikus-entzunezkoetan, eta erronka ederra gertatu zitzaidan. Gure hizkuntzaren eta kulturaren maitale suharra naiz, gustatzen zaidana egiten dut, hobekien egiten dakidana eginez. Filmatzen, alegia.

Nola heldu zara Garabideko Aditu programara?

Batetik bestera nabil beti, saltsan, noiz-nahi komunitateko arduradunekin, edo kazetaritza indigenaren eskolako kideekin... Behin, Elias Caurey guaraniera idazle handiarekin kolaboratu nuen lan batean, eta hurrena, Garabidera etortzeko gonbita egin zidaten komunitateko arduradunek. Gutxi-asko azaldu zidaten zertan ari den Garabide, eta galdetu zidaten ea zer iruditzen zitzaidan hona etortzea, eta halaxe!

Munduan lau ertzetako komunitateetako kideak ezagutu dituzu hemengo egonaldian. Zer azpimarratuko zenuke?

Herri indigenak garela denok, problema berak ditugula, izan Marokon, izan Bolivian, izan Haitin... Eta, bestalde, hizkuntzaren aktibistak gara denok, geure ama hizkuntzen egoeraz kezkatuak bizi gara, desagertzeko arriskuan daudela oharturik, eta, oharturik, era berean, hizkuntza gure identitatea dela: gure bizia, gure izateko modua. Hizkuntza ez da, beste gabe, komunikazio tresna. Da kosmobisioa, da bizi-filosofia. Ama hizkuntza hiltzen bada, kultur ondare guztia hilko da, hizkuntzarekin batera datorrelako arbasoen jakitate osoa. Niri dagokidanez, hizkuntza dena da, guztia. Komunikazio tresna baino gehiago, askoz gehiago da hizkuntza. ●

Nobedadea

Abentura erraldoia

Salba dezagun kalejira

Gorka Bereziartua eta Adur Larreak ondutako ipuina. Alajaineta herriko jaiak datoz, baina aurrean inork ezin ditu erraldoiak kalean dantzatu, eskerrak Izar, Ainubi eta Etxahun gai diren gauza miragarriak lortzeko, Kukutturlio maskotaren laguntzaz.

ARGIA



azoka.argia.eus

(+34) 943 17 35 45



ARGIA SARIAK 2025



Ez dira gaur goizeko Argia sarietako argazkiak. Ia lau hamarkada igaro dira ARGIA sariak banatzen hasi zenetik.

ARGAZKIAK: LEIRE ARZUAGA ETA A. BAYO.

Saridunak aukeratuta, banatzea falta

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

1 989an lehen Argia Sariak ospatzekotan zirenek ez dakit imajinatu ere egiten ote zuten sariok, etxean, urteetan zehar hartuko zuten dimentsioa. Eta hemen gara, lau-urogeiko hamarkadaren azken apurretan hain urrun begizatuko zen 2025 honetan, hogeita hamaseigarren sari banaketa ate joka dugula.

Franco hil ondorengo lehen urte mugitu haietan ernatu ziren euskarazko hainbat hedabide, hala nola, Euskal Telebista, Euskadi Irratia, Iparraldeko hainbat irrati eta eraberritutako ARGIA bera. Testuinguru berezi hartan, sari hauen bueltan batu nahi izan ziren euskalgintza, erakundeak eta familia politikoak; bazkari goxo baten konpainian, bidelagun zirenen lana aintzatetsi, eta atzean utzitakoei ai-

tortza egiteko. Funtsean helburuek jarraitzen dute berdinak edo antzekoak izaten, euskarazko kazetaritza eta komunikazioa lehen lerrora ekartzea baita gogoa, esparru horretako lanei, proiektuei eta pertsoneri ikusgarritasuna, onspena eta bultzada emanez. Gonbidatuen aurpegiak aldatu dira, noski, nahiz eta ordezkatzen dituzten erakunde eta eragileak asko berdinak izan. Dena den, gorbatek galdu dute indar pixka bat eta familia giroa bilatu da gehiago azken urteetan (harpidedun batzuk gonbidatzen dira eta ARGIAk baliatzen du eguna taldea eta proiektua sendotzeko ere).


Antton Mendizabalen garaikurra jaso dute 1991z geroztik saritu guztiek eta aurtengoak izango dira azkenak. Dagoeneko martxan da erreleboa

emango dion artistaren bilaketa, oraindik ezer zehaztuta ez badago ere.

ARGIA SARIAK KANAL BERRIA

Lasarte-Orian, Txartel-Txokon hasi eta Txitxardin Beltzatik pasaz, Usurbilgo Atxega jauregiko jantokiraino lekualdatuz joan dira Argia Sariak. Felix Sarasola sukaldari eta Argiazale zenaren laguntza ezinbestekoa izan da. Hamaika izan dira sarituak, hasierako irizpideari jarraituta: sariak besteentzat dira, ez etxeokentzat. Azken hilabeteotan artxiboko txukunketa lan batzuk egin dira eta emaitza polita lortuta, Argia Sariak kanala sortu dute, urtez urteko sarituen zerrenda eta argazkiekin.

Urtarrilaren 31 bertan da, eta eskuetan ditut aurtengo sarituen izenak jasotzen dituzten gutun-azalak. Eta 2025eko irabazleak dira... ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA


Prokrastinazioaren artea

New York, 1924ko otsailaren 12an. Aeolian Hall aretoan *Esperimentu bat musika modernoan* izeneko kontzertua eman zuen Paul Whiteman zuzendariaren bandak, George Gershwin pianoan zela. Kontzertuko pieza nagusia Gershwinek konposatutako *Rhapsody in Blue* pieza berria izan zen.

Whitemanek berak egin zion enkargua denboraz, baina Gershwinek ez zion lanari berehala heldu eta, azkenean, pieza konposatu behar zuela ere ahaztu omen zitzaion. Kontzerturako hiru aste falta zirela egunkarian ikusi zuen kontzertua iragartzen zutela, berak konposatu beharreko estreinaldia barne. Korrika eta presaka konposatu behar izan zuen XX. mendeko musika klasiko-ko piezarik garrantzitsuenetakoa.

Kapera Sixtinoa margotzen Michelangelok lan eskerga egin zuela inork ez du zalantzan jartzen, baina Julio II.a aita santuak emandako epeak behin eta berriro luzatu zituen artistak, enkargua oso konplexua izateaz gain, artistak prokrastinatzeke joera nabarmena omen zuelako.

Baina idazleak izan dira bereziki prokrastinazioaren artea maisutasunez landu dutenak. Marcel Proustek arropa konpultsiboki tolestean omen zuen idazten ez hasteko aitzakia moduan; galtzerdiak magdalena formarekin tolesteko teknika berezi bat ere garatu omen zuen, *la touche Proust* izenez ezaguna. Tolstoik hormetan zintzilikatuta zeuden koadroak obsesi-



GASPARD-FELIX TOURNAÇON

Victor Hugok prokrastinatzeke joera zeukan, baina arazoari aurre egiteko teknika berezi bat ere bai.

boki zuzen jartzen ematen omen zuen denbora, eta alkoholak ere eginbeharrak atzeratzen laguntzen zion. Kafkak aldiz gestioak egiten galtzen zuen denbora: argindarraren kontratuaren titulartasuna aldatzen, fakturak erreklamatzeko...

1830eko udan Victor Hugori *Notre-Dame de Paris* obraren enkargua amaitzeko epea amaitzen ari zitzaion. Urtebete zen editoreak enkargua egin ziola, baina beste proiektu eta kontu batzuetan galtzeko joera zeukan. Horregatik,

metodo bitxi eta eraginkorra asmatu zuen: zeukan arropa guztia giltzapean gorde zuen, xal handi bat salbu. Horrela, biluzik eta soilik xala soinean, ezingo zuen kalera irten. Kaleko tentazioa uxatuta, idaztea eta epeak betetzea errazagoa zen harentzat.

Baina egun Victor Hugoren teknikak eraginkortasuna galdu du, prokrastinatzeke tentazioa etxe barruan eta, maiz, lanerako erabiltzen dugun tresnan bertan dagoelako. ●



D. DIOGO DE SOUSA ARKEOLOGIA MUSEOA

Ikonodiagnosia

Bracara Augustan (egungo Braga, Portugal) II. mendeko brontzeko estatuatxo bat topatu dute. Irudiaren aurpegiko ezaugarriak erreparatu diete adituek: begi irtenak, exotropia, aurpegiaren asimetria... Eta ondorioztatu dute litekeena dela figuratxoak egiteko modelo gisa erabili zuten den emakumeak Cro-

zuonen sindromea izeneko gaixotasun arraroa izatea.

Ikonodiagnosia deritzo artelanean irudikatutako xehetasunei esker gaixotasunak eta nahasmenduak diagnostikatzeko teknikari. Artea eta medikuntza batzen dituen praktika honek gaixotasunen eragin eta bilakaera historikoa ulertzen laguntzen du. ●

MUNDU BERRI ONAK



JOSEBE BLANCO ALVAREZ

Gaizki erabilitako *zorionak* eta buklean errepikatutako *urte berri on* guztiak atzean utzita, berriz ere hasi da gurpila mar-txan –inoiz gelditu al da?– eta gu arnasa hartzen –edo horrelako zer edo zer–. Honetan ere artzaina izatea abantaila da, ardi-lanetan murgilduta egoteak ez digu denborarik edo gogorik uzten zurrunbiloan murgiltzeko, eta zorte apur batekin, kalera jaitsitakoan mezu errepikakorren ufada pasa da. Sortutako kalteak baino ez dira ikusiko bazterretan, makinak behartutako zoriontasun perfektuaren pusketak.

Barkatuko didazue hasiera; ezkor samarra, beharbada. Ez larritu, zibogara helduko gara, nekatuta bada ere, eta orduan honek beste kolore bat hartuko du. Horixe izan baita neure zeharkaldia azken bi asteotan.

Gazta eraman eta erosketak egitea, horixe nire asmoa. Handik ateratakoan ez neramatzan, ordea, etxerako behar nituenak bakarrik. Autoan ez ziren sartzen zure hitzek sortu zidaten tristura, eta bihotzean gorde nuen, nigan izan zenuen konfiantza eta proiektuarekiko duzun maitasunarekin batera.

Handik bi egunetara, Amaia Pérez Orozco ekonomialariak herrian eman zuen hitzaldian zure hitzak etorri zitzaizkidan une batez: bizi dugun *gauza eskandalagarri honetan* egon badaude jada gertatzen ari diren aldaketa eta gauzatzen ari diren esperimendu ederrak, guztiontzako bizitza bizigarria posible dela egiten eta imajinatzen laguntzen digutenak.

Harrigarria da zer nolako garrantzi txikia ematen diegun ekimen xumeei; nahiz eta gu geu bertako kideak izan. Ez, ez naiz hasiko harrokeria aldarrikatzen, baina ondraduak izan behar badugu, eta behar dugu, inguruan ditugun



GARUNA BORROR / CC-BY-SA

proiektu horietan sinesten badugu –eta sinesten dugu, bestela, ez geundeke–, elikatu egin behar ditugu, bizitzaz, geure bizitzaz, hilko ez badira –ez bagara–. Derrigorrean. Ez dago beste aukerarik.

Eta gainera zorretan gaude, lagun helduok; zorretan gazteekin, besteak beste. Jendarte honek ezin baitu onartu Hego Euskal Herriko gazteen %60k pentsamendu suizidak edo autokaltegarriak izatea. Ezta 15 eta 29 urte arteko gazteen artean suizidioa izatea heriotza-kausa nagusia, auto-istripuen aurretik. Hauek al dira, BPGrekin batera, *ongizatearen jendartearen* adierazleak? Ondare materialez betetzen genituen ametsek ekarri ote gaituzte ametsik gabeko etorkizunera?

Hitzaldian behin eta berriz komunitatea azaldu zen. *Zenbat lagunek osatzen dute komunitatea?* galdetu zuen entzuleetako batek. Beste batek komunitatea josten hasteko ekarpena: eramaiozu bizkotxo zure atariko edozein bizilaguni, aurkeztu zeure burua.

Barreak entzun ziren aretoan. Baina zuen atarietako zenbat lagunuen izenak ezagutzen dituzue? Eta zer ikasten ari diren atariko gazteak? Herrigintza, auzolana... ahoa betetzen zaigu, baina oinarri-oinarritik hasi behar dugu herria eraikitzen, oinarria falta baitzaigu: gure ondoan bizi diren izenak eta izanak ezagutzea.

Kasualitateak eraman nau egunotan militantzia ereduari buruzko hausnarketak bildu zituen 2020ko apirileko LARRUNera. Irakurketan hasi eta gutxira txirikordari egin diot korapiloa: “Espazioen eta denboren fragmentazio horretan, militantzia eremu oro josten duen esparru gisa birpentsatu genezake: lan esparrua militantzia esparru bihurtuz, militantzia esparrua arlo erlazionala asetzeko esparru eginez, etxetik barrurako eremua militantzia eremu eginez. Horrenbeste aipatu izan den 24 orduko militantzia, bizi eredu moduan ulertu beharko genuke, eta ez horrenbeste disposizio moduan. ‘Borrokaz bizi’ leloa edukiz betez”.

Borrokaz bizi leloak, nik ulertu dudana bezala, ez du *haserre bizi* esan nahi, baizik eta pentsatzen eta sentitzen dugun horri bidea ematea; gure egunerokotasunean gorpuztea, atalez atal, guztiontzat bizigarria den mundu berri hori. Akaso, horretan datza gaur egun iraultzarik latzena: ekimen txikietan mundu berri bat elkarrekin eraikitzen ari garela barru-barruan sentitzean.

Dena borobiltzera etorri da abenduaren 27ko Janire Arrizabalagaren Euskadi Irratiko zutabea –1:01:56–. Gernikar gazteak halaxe eman dio bukaera: “Hemendik aurrera niri ez eman zorion edo urte berri onik, mundu berri onak soilik”.

Mila esker borrokaz biziz mundu berri onak eraikitzen ari zareten guztioi. ●

A ZE FAUNA!

BAGERA, GU ERE BAI, GU BETI POZETZ... ANGULAK EZ HAINBESTE



ENEKO BACHILLER OTAMENDI
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Duela 180 milioi urte Pangea kontinentea zatitu zenerako ikasia zuen aingirak Thetis itsasoa zeharkatzen. Ordudanik kontinenteak mugituz joan dira, eta aingira espezieak ezberdinduz. Jatorrizko arbaso beretik bereizi diren 20 aingira espezieen artean, gurea da, ibai-aingira edo aingira europarra, migrazio ibilbide luzeana egiten duena: 7.000 kilometrorainokoa. Joan-etorriko bidea egiten du gainera; joanekoa bizitzaren hasieran, eta itzulerakoa, amaieran. Tartean mehatxu guztiak gaindituz gero, beti ere. Hori eta gehiago badakigu; aitzitik, inork ez du itsasoan aingiraren arrautzarik egundo ikusi, eta larbarik txikiak Bermudatako triangeluaren erdian topatu dira.

Johannes Schmidt zientzialaria Dana II espedizioan (1928-1930) ohartu zen, Europako kostatik urrundu ahala aingiren larbak gero eta txikiagoak zirela. Sargazoen Itsasoan (Atlantiko ipar-mendebaldean) topatu zituen txikiak (5 cm-rainokoak), gorputz garden eta zapalarekin. Ordudanik dakigu larbek migrazio luzea egiten dutela, handik abiatuta. Sardatan burutuko duten bi urtera arteko bidaia honetan, korronteek Itsaso Baltikoko, Ipar Itsasoko, Bizkaiko Golkoko, Afrika iparraldeko nahiz Mediterraneoko kostalderaino eramango dituzte. Batzuk kostaldean geratuko dira, edo lagunetan. Gure kostaldean ordea, estuarioan barneratuko dira. Une horretan, lehen metamorfosia burutuko dute: hala, hortzak eta gorputz luze biribildua garatuko dituzte, eta angula garden bilakatuko dira. Jaiotzez sexua definitu gabe duten angula hauek dentsitate handietan egonez gero, etorkizunean gehienak ar modura garatuko dira; gutxi izatekotan, hobe eme, espeziearen biziraupena bermatzeko.

Estuarioan barrera, lehen ongietorria bertako arrantzaleena izan daiteke, batez ere ilargi berriko garaian. Hori gaindituz gero, ibaian gora jarraituko dute, hazi aha-

la pigmentazioa (kolorea) garatuko dute eta aingira hori bilakatuko dira. Emeek, arrak baino handiagoak oro har, 10-20 urte emango dituzte ibaian, heldutasun sexuala lortu arte; arrek, 6-12 urte. Gero eta iparralderago, are luzaroago egongo dira ibaian, eta behin unea iritsita, bizi-tzako bigarren metamorfosia jasango dute; zilar aingira bilakatuko dira, itzulerako migrazioari ekiteko. Izan ere, ale bakoitzak bizi osoan izango du txikitik egindako ibilbidea gogoan, baleen antzera, magnetismoan oinarritutako orientazio-mekanismoari esker. Une horretan garatuko da ugal aparatua ere. Horrela, behin Sargazoen Itsasora iristean, sakonera abisalean (200 – 1.000 m) murgildu eta eme bakoitzak 20 milioi arrautza inguru askatuko ditu, arrek spermaz ernalduko dituztenak (kanpo-ernalketa). Ondoren, aingirak hil egingo dira. Arrautzak (oraindik itsasoan inork ikusi gabekoak) han nonbait bilakatuko dira larba, migrazio berri bati ekinez.


IBAI AINGIRA *Anguilla anguilla*

TALDEA: Ornoduna / Arraina.

NEURRIA: larbak 5 cm baino gutxiago; angulak 6-8 cm; aingirak 150 cm arte. Eme helduek arren adin eta neurria bikoiztu ditzakete.

ZER JATEN DU? Intsektuen larbak, zizareak, krustazeoak, moluskuak, arrain txikiak....

BABES MAILA: Espezie zaugarria, Espainiako Ornodunen Liburu Gorrian.



ESTI DIAZ / CC-BY-SA

Bizi zikloa nahikoa zaila ez, eta korronteen aldaerek ondorio latzak eragin ditzakete estadio goiztiarren biziraupenean. Gainera, Iberiar penintsulan kasu, aingiren habitat naturalen %80k mehatxatuta dago, itsasoranzko itzuleran topatu ditzaketen zentral hidroelektrikoen eta urtegien moduko harresien ondorioz. Gainera, itzulerako bidaia honi aurre egiteko aingirek pilatutako erreserben artean ibaietako uren kutsadura aztarnak topatu dira. Hori guztia, arrantzarekin batera. Bada honi dagozkion neurriak neurri, 1980ko hamarkadaren aurretik gurera iristen ziren 100 angulako, egun 8 baizik ez dira heltzen. Ipar Itsasoan bakarria edo gutxiago, urtearen arabera. Kontuan izan, populazio bakarraz ari garela; hots, euskal aingira bat norvegiar batekin elkartu daitekeela Sargazoen Itsasoan. Hau oinarritzat hartuta, Europa hegoaldeko angulekin iparraldeko ibaiak birpopulatuz hanga arrantza bermatzen saiatu izan badira ere, ez dago argi mugitutako angula horiek zilar aingira bilakatzean itzulerako bidea egiteko gai diren.

Espeziearen hazkuntza motela izaki, ugaltzera doazen emeez gain, txikiak ere zaintzea da gakoa; eta horretarako onena, haien kasa uztea. Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren arabera, aingira europarra arrisku larrian dago katalogatua. Baina kiloa 1.200 euroan erosten denean, ez gabiltza kutixiaz, estatua bat irensteko irrikaz baizik. Ezin poltsiko horiei egindako kaltea espezieari egiten zaionarekin parekatu. Sukaldari ezagun askok haien jatetxeetan angularik ez eskaintzeko hautua egina dute dagoeneko. Zientzialarien hitzei erreparatzen dieten seinale. Nire kasuan *gula* mordoa hartu eta begiak pintatzen hasiko naiz, danbor hotsak entzuterako kaxuela prest izan dezadan. Beti alai. ●

EZIN USAINIK HARTU



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Sudurrak egia dio. Zaila da sudurra engainatzea. Usaimena saihestea ezinezkoa da. Sudurretik garunerako lotura bidearen ikerketa zirrargarria, liluragarria, zoragarria da makina bat ikerlarirentzat. Usainaren eta memoriaren arteko zubia azkarrena ez bada, bizkorrenetakoa bai. Ezaguna zaigun usain batek amaren batean egiten du memoriaren artxiboko apalen arteko neuronon ibilbidea, ziztuan, eta begien aurrera ekartzen digu usain hari lotutako ariera, egoera edo gertakaria. Usaina ezaguna izatea, noizbait aditu izana, bereizteko moduko bereizia behar du izan. Eta usaintzen dugun aldiro berrituko da gertakaria. Gertakaria gertatu zenean beharbada ez genion usainari aparteko axolarik eskaini, baina hor gorde zen, neurona habia jakin batean.

Landareek entzun egiten dutela bada-kigu, joan bestela ARGIA pare bat lehenago ilarraz (*Pisum sativum*) aritu gine-nekora. Usaimenik ba ote duten ez dakit, baina gure usaimena aztoratzen dutela bai, zenbat usain zabaltzen dute landareek, azaletik, zuretik, egurretik, hostotik, loretik, fruitutik... Batzuk gustukoak, beste batzuk atzera eragiten dutenak. Denok ez dugu gustu berbera, zuk atsegin, nik ez ordea, eta alderantziz. Baina landareak beti usain bera sortuko du.

Usaina ezaguna izatea nioen lehen gure bizitzako txinpartak biziberritzea. Eta usain hori zer landarek sortzen duen ere ezagutu behar, ereiteko edo landatzeko, lehortuta eskuratzeko, edozertarako. Eta hor zikulu-saltsa ederra dugu euskaldunok. Batean eta bestean izen bera bi landare edo gehiago izendatzeko, eta landare batek izen mordoa ere bai...

Usain harrigarri ona du ezamihiluak (*Anethum graveolens*). Aneta, anado, anedo, anero, meillu, migelo, molu, mier-



Mihilua (*Foeniculum vulgare*).

DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

lu, anis-belar, esateko izen asko du. Badu beste landare batek "ezamihilu" izena bera, mihiluak berak (*Foeniculum vulgare*). Honela ere esaten diogu: berbera, erbasanta, milu, muhulu, milu-belar, puhulu, mehula, anis-belar eta xarpot behintzat bai. Forma, loraldia eta abar oso antzekoak dituzte, eta hortik nahasitasuna eta iluntasuna bereizterakoan, gero izendegian jaso dena, hiztegieta eta abar. Biak usaintsuak dira: mihiluak anis usain gozoa du eta ezamihiluak, aldiz, usain astun ez oso gozoa. Hona nahasketa argitzeko bidea; baina pituitariak ondo al dituzu? Usaimen arrastorik ba al duzu? Gure hiztegiak ez, agidanean. Sukaldaritzan erabiltzen dira, batez ere, baina ez da gauza bera zopa bati bata edo bestea eranstea, eta hor bai, sukaldariek ederki bereizten dituz-

te; usaimena egokia izatea eta jalearen zentzumen guztiak asetzea, baita mirri-nenarenak ere, jatetxeko negozioren oinarria da.

Badaukagu izen saltsa argitzen lana. Ezamihilua biei; anis-belar biei; miellu, milu... a zer izen emultsioa! Eta anisa (*Pimpinella anisum*), benetako anis-belarra, gaurko errezetan sartu gabe. Panorama hau ikusita mihiluak negar egiten du: bere zaurietako jarioari "milu-lerde" edo "milu-negar" esaten zaio.

Izen nahaste-borraste hau argitzera ea nor jartzen den; indarra beharko du, bai. Anisa egokia horretarako. Anisa edari bizia eta baita landarea ere; Pedro Pruden-zio Hualde Mayo bidangoztar apai-zak (1823-1879) anisari "sonto-belarra" esaten dio: sontotzea osatzea, sendatzea eta sendotzea da. ●

URTEAGA-URKULEGI BASERRIA

BARAZKI, FRUITU ETA HARAGI,
DIBERTSIFIKAZIOA EKOIZPENAREN OINARRI

GARAZI ZABALETA

tsason (Gipuzkoa) elkarren ondoan dauden bi baserri dira Urteaga eta Urkulegi, duela zenbait urte elkar-tu eta proiektu bateratua martxan jarri zutenak. “Bi baserriak elkartu eta ekoizpen proiektua abiatu genuen, eta 2011tik dedikazio osoarekin ari naiz honetan”, azaldu du Gorka Sasieta Barrenetxea proiektuaren bultzatzaileak. Albaitaritzza ikasketetan animalia ekoizpenaren adarra egin zuen goierritarrak, eta ikasketak bukatutakoan argi zuen baserrian bizi eta lan egin nahi zuela. Urretxu-Zumarragan kontsumo taldea martxan jarri zuen eta barazkiak ekoizten hasi zen orduan.

BASERRIARI SEGIDA

Urkulegikoa da Sasieta, eta beti izan du lotura baserri munduarekin eta nekazaritzarekin. “Ikasketa garaian kalean bizi izan ginen, baina familiaren baserriarekin harreman estua beti izan dugu”, dio. Modu profesionalean izan ez arren, baserriko aktibitateari eutsi izan dio beti, 2011n jauzia ematea erabaki zuen arte. “Ekoizpen moduari begira, baserriko lehengo aktibitatearekin segitzea izan zen, baina pixka bat hazita”, azaldu du. Izan ere, aurrekoek egiten zutenaren antzeko moduan, ekoizpen dibertsifikatua dute gaur egun Urteaga-Urkulegin: baratzea, fruta-arbolak, behiak... “Gure lan egiteko moduarekin ezinbestekoa da dibertsifikatzea, baratzea eta ganadua elkarrekin doaz, simaurrarekin ongarritu ahal izateko, adibidez.

Eta lan kargari begira ere, urtean zehar jarduera desberdinak egitea orekatuago iruditzen zait”, gehitu du.

Sasietak azaldu duenez, dena den, baratzea da proiektuko aktibitate nagusia. Eredu ekologikoan ari dira hasieratik, kontsumitzaileari eskaintzen dioten produktua zaintzeko eta lurra kaltetu gabe lan egiteko modu bakarra dela sinetsita. Barazkiak kontsumo taldean

astero banatzen dituzte saskien bidez eta inguruko denda eta jatetxeetan ere bai. “Goierriin martxan jarri den Biziola kooperatibaren bidez ere saltzen dugu”, gehitu du.

NEKAZARIAK BATZeko BEHARRA

Fruta-arbolak eta fruitu txikiak ere badituzte Urteaga-Urkulegin, eta zukuak ekoizten dute horiek. “Sagarra dute oinarrian zukuak, baina bestelako nahasketak ere egiten ditugu: madariarekin, fruitu txikiarekin, sagarra masustekin edo kiwiarekin nahasita...”. Momentuz, Zaldibiako Goizane zentroan egiten dituzte eraldaketak, nahiz eta baserrian bertan eraldaketa gune txikia prestatzen ari diren, aurrera begira zukuak etxean ekoizteko.

Haragitarako behietan, zazpi ama dituzte baserrian, eta txekor haragia Goi Eko Haragia proiektuaren bidez saltzen dute. “2014an elkartu ginen Goierriin ekologikoan ari ginen lau haragi ekoizle, ereduari ikusgarritasuna emateko asmoz. Lanketa taldean egitea egokiago ikusten genuen”, dio. Gaur egun sei lagun ari dira proiektuan, eta loteetan saltzen dute haragia hurbileko merkaturatze bideak erabilita. Proiektu horretan bezala, eskualdean nahiz Euskal Herri mailan nekazari eta abeltzainen arteko aliantzak ezinbestekoak direla defendatu du Sasietak. “Biolurreko kide ere bagara, EHKOLEktiboan ere bagaude... eremu guztietan lankidetzaz bultzatu nahi izan dugu beti”, dio. ●




Nolakoa zatekeen sekula eraso gabeko Palestina?

Zeresana ematen ari da Rami Younis kazetari eta aktibista palestinarraren *LYD* animaziozko film-dokumentala. Fikziozkoa da, Israelek inoiz okupatu gabeko Lyd hirian kokatua, zeinean ez den sekula ere britainiarren koloniarik egon, eta juduak eta arabiarrek elkarrekin bizi diren; errealitate alternatibo hori kontatzea du xede. Baina Israelgo estatu sionistari ez zaio planteamendua gustatu. Zentsura jasan du filmak, eta mehatxupean da Younis. Aldi berean, baina, publiko konkretu baten babesa jaso du nazioartean, baita sariren bat eskuratu ere.

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Ez zen asko falta izan. Ia-ia heldu zen pelikula Tel Aviv hiriarren kanpoaldeko zinema-areto batean proiektatzera. Baina aktibismo palestinarrak pare-parean egin zuen topo sionismo erradikalarekin. Estreinaldia baino egun gutxi lehenago, Palestina zanpatzearen alde dagoen tipo bat garaz ohartu zen gertatzeaz zenaz, Palestina askea irudikatuko zuen fikziozko film bat proiektatzeaz zirela, eta Israelgo Gobernuko Kultura ministroari izkribua bidali zion, urgentziaz eskatzeko geldi zezala “kolpe terrorista”. Hala egin zuen Miki Zohar ministroak, makineria martxan ipinita. *LYD*-ek Israelen egingo zuen lehen proiektzioa zatekeen.

Film “burugabe eta maltzur” gisa definitu zuen ministroak, “fundamentu gutxiko gezurra”, manipulaturia, Israelgo estatuaren aurkakoa, kalumniaz bete. Hala hauspotu zuten hainbat hedabidek, eta, ministroak Poliziari eskatu ez



ezik, komunikabideek ere presio egin zuten estreinaldia galarazteko. Poliziak “ohartarazpen solasaldi bat” izan zuen zinema-aretoko zuzendariarekin eta programatzailearekin, eta, azkenean, gobernuaren esanetan, zinema-areto kudeatzaileek haien borondatez kendu zuten filma afixategitik. Antza,

“baimenik” ez zuelako. Izan ere, Kultura Ministerioaren parte den Israelgo Zinematografia Komitearen zeregina da proiektzio-baimenak eskatzen dituzten pelikula guztiak errebisatzea, eta, oniritzirik ezean, legez kanpoko bihurtzen da produktua.

Harrabotsa sortu zuen gertakariak, ezkerreko jendea asaldu egin zelako, eta ez zen isilik geratu Segurtasun Nazionalako Itamar Ben-Gvir ministroa: “Ezkerreko jendearen aieneak entzuten ditut *LYD* filmarekin proiektzioa bertan behera uzteari buruz. Ulertu behar dute legea lege dela, eta agindua agindu”.

Kultur munduaren bueltako Israelgo hamalau antolakundek protesta egin zuten zentsuraren harira. “Israelgo Poliziaren betebeharra adierazpen-askatasuna babestea da, eta ez hura deuseztatu nahi dutenak babestea”, salatu zuten. Bada, bide judiziala zabaldu eta fiskal nagusiarri eskatu zioten argitu zezala funtzionamendua, ea ongi ikusten duen Kultura

ministerioaren eta Poliziaren eskuetan egotea eduki kulturaren aurkezpen oro. Alegia, beste hitz batzuetan esanda: ea, fiskal nagusiaren aburuz, zentsura legezkoa den ala ez. Erantzun antzu eta zehaztu gabe bat eman zuen, ezer ez esateko.

ZENTSURA ETA AUTOZENTSURA

Orain arte aipaturikoa 2023ko urriaren hondarrean gertatu zen, Hamasek Israeli eraso egin, agintari sionistek Palestinaren aurkako jardun militar are bortitza goa abiatu eta aste gutxira. Orduetik, gauzak larriagotu egin dira, baita kultur munduan ere. “2023ko urriaren 7a baino lehen, gisa horretako pelikula bat egi- tea eta proiektatzea literalki larruazala jokoan ipintzea zen, eta zinemagileok

“ ”

Filmak erakusten du Palestinan bizitza zegoela 1948a baino lehen, baita gaur egun Israelentzat zulo ziztrina den Lyd hirian ere

autozentsuratu egiten ginen, beldurra genuelako; orain, proiektatzen ere ez digute uzten, eta kantzeldazioak askoz

ere handiagoak dira, esperotakoagoak”, adierazi dio *LYD* filmaren atzean dagoen Rami Younis kazetari palestinarrik *Haa- retz* egunkari israeldarrari. Erdi ironiaz zera gehitu du: “Zer nahi duzue, bada? Segurtasun ministroa Ben-Gvir den es- tatu batean bizi gara”.

Ez da, jakina, zentsura kasu bakarra. Eguneroko ogia da estatu sionistaren karietan. Esaterako, duela hilabete es- kas, Israelgo Zinematografiaren Erre- bisiorako Komiteak zentsuratu egin du Neta Shoshani zinemagilearen film berria, *1948. Remember, Remember Not* deiturikoa, “eztabaida” eta “arazoak” sor ditzakeelakoan Israelgo gizartean. 1948ko gerra kontatzen du dokumental horrek, judu eta arabiarren testigantzak jasota. Nazioartean sariren bat jaso on- doren heldu behar zuen Israelera.

Horrez gain, duela gutxi ere, *Yenin, Jenin* pelikula zentsuratu du komiteak, Mohammed Bakri zuzendariarena, Biga- rren Intifadan kokatua eta Jeningo batai- la kontatzen duena.

LYD HIRIA ETA LYD FILMA

Rami Younis, kazetari eta aktibista, *Lyd* hirian jaio zen 1982an, Palestina okupa- tuan –Googleri galdetuta, Younis israel- darra dela esango dizu, eta leku ugaritan horrela aurkeztu dute-. 1948ko Nakba jasan zuen hirugarren belaunaldikoa da. Londresera joan zen eta han egin zituen ikasketak. Itzuli zen, dena den, eta Tel Aviv hiriaren inguruetan bizi da –sarean irakur daitekeenez ez du bere bizilekua- ri buruzko inolako daturik ematen, jaza- rria izan baita ultraeskuinaren aldetik-. Aurretik beste fikziozko film bat du egi- na, gazte palestinar bati buruzkoa, Zis- jordaniako Rammalah hirian bizi dena eta gerora ezagun egingo dena, liburu bat idatziko baitu *checkpoint* batean soldadu israeldar batekin bizitakoaren harira. *Tel Aviv on Fire* (Dena Tel Aviven gertatzen da) izena du filmak. 2018an ikusi zuen argia, eta Veneziako zine jaialdian aktore onenaren saria irabazi zuen protagonistak.

Bada bigarren pertsona esangura- tsu bat *LYD* pelikularen arduetan ari- tu dena: Sarah Ema Friedland. AEBetan bizi den israeldar zinegilea da, lan ugari eginikoa kameran atzean. Sortzez israeldarra denez, familia judutarrekoa, berari esker heldu zen pelikula Israelgo zine-areto bateko karteldegira. Kante- lazioa pairatu du berak ere, eta bere eta beraren familiaren aurkako kanpainan ari da ultraeskuina Israelen.



LYD izena du bi orduko iraupena duen fikziozko dokumentalak; Lyd hiriari buruz mintzo da. 1948an okupatu zuen Israeliek. Hiri esanguratsua zen orduko gizartearentzat: han zegoen Palestinako aireportua, munduarekin konektatzen zuena, eta geografikoki leku aproposan zegoen, merkantzia ugariren igarobidea zen... Israelgo armadak guztia eraitsi eta lurrak okupatu zituen arte. Gaur egun zutik jarraitzen du aireportuak, baina Israelgo Gobernuaren eskuetan. Eta beste izen batekin: David Ben-Gurion Nazioarteko Aireportua. Israelgo aurreneko lehen ministroa izan zen Ben-Gurion, estatua sionistaren aita pontekoa, armada sortu eta okupazioa bortizki abiatu zuena. Lyd izena zuen hiriak ere beste izen bat du orain: Lod. Hamabost kilometro eskasera dago Tel Aviv hiri handitik.

1948an, Israelgo estatua sortu eta gutxira, soldadu sionistek indiskriminaziorik gabe egin zioten hiriari eraso. Historiagileen arabera, 50.000 pertsona inguru bizi ziren Lyd hirian, tartean Israeliek ordurako okupatuak zituen lurretatik hara joandako palestinarrek, eta horiek hiria defendatzeko ari ziren prestatzen, bazekiten-eta Israelgo soldaduak hara ere heldu egingo zirela berandu baino lehen.

Baina armada ofiziala heldu baino lehen hasi zen triskantza. Palmach soldaduek –miliziano israeldarrak ziren, estatu sionista sortu aurreko brigadetakoa bat– ekin zioten erasoari. Meskita batera sartu eta misilak jaurti zituzten, eta, horrela, minutu gutxiren buruan 200 bat pertsona hil, gutxienez. Hor hasi zen hiriaren azken erresistentzia. Milaka heriotza eragiteaz gain, ghetto bat propio sortu zuen Israelgo Gobernuak, hiriaren gutxieneko azpiegiturek martxan segitu zezaten, kolpetik israeldarren eskuetara pasatu beharrean. Mila bat pertsona geratu ziren horretan preso, beraien hirian atxilo, tartean Rami Younisen sendia, gainontzeko guztiak desplazaturik eta xasko erailda zeudenean.

Ezinbesteko azpiegiturak eta zerbitzuak mantendu bai, baina urbanistikoki erabat aldatu zen hiria. Apropos, gainera. Haifa, Jaffa edo beste zenbait hiri palestinar okupatu ez bezala, Lyd –egungo Lod, Israelen mapan– guztiz bestelako hiri bat da urbanistikoki, dokumentalgileek bezala, hirigileek ere berresten dutenez. Guztia eraitsi zen. Are, Israeliek idatzirikiko historian, terminologia argigarria da: ez da Lyd hiriaren 1948ko gertakari hura *okupazio* gisa deskriba-



Filmeko bi fotograma. Animazio-irudiak nahasten dira elkarrizketa eta testigantzekin.

“ ”

Israelgo gazteek ez dute bere historia ezagutzen; hori arazo larria da

tzen, baizik eta Lyd hiriaren 1948ko *liberazioa*.

Bortitzagoak dira hiriaren eguneroko detaileak. Kale luze bat bada *Tsahal* deiturikoa –Israelgo armadaren izena da–, eta gertakari lazgarrien kokaleku izandako meskita, fisikoki existitzen ez bada ere, zegoen lekutik gertu, *Palmach* izena duen biribilgune eta plaza handi bat dago. Masakrearen egileei omenaldia egiten diete, plaka batek ere hala dio, "hiria palestinarren atzaparretatik askatu zutela omentzeko".

OKUPAZIORIK GABEKO LYD

"Zoritxarrez, Lyd hiriaren historia ez da inoiz kontatu, propio ezabatu da, deuseztatu da, eta kontatzea erabaki dugu", irakurri diogu *LYD* filmaren zuzendari Rami Younisi AEBetako *Democracy Now* hedabidean eginiko elkarrizketan. Lyd hirian gertaturikoa, historia, Palestina osoaren historia dela dio Younisek.

"Nakbari buruz asko idatzi da, dokumentatu da, zorionez... baina beste bira bat eman nahi genion kontatzeko erari".

Horregatik jo dute fikziora. Bizimodu alternatibo bat irudikatzea izan dute xede: "Nolakoa litzateke errealtatea, *hauen-gatik* ez balitz, ankerkeriarik gabe?".

Dokumentala eta fantasia uztartzen dituen lan hibridoa da *LYD*. Hiriaren historia kontatzeko, artxiboko grabazio eta elkarrizketak ez ezik, hizlari berriak ere aurkitu dituzte, biktima zuzen batekin ere hitz egin dute –filma argitaratu aurretik zendu zena, Eissa Fanous–, baita familia horien ondorengo senideekin ere, eta dokumentu horiekin konbinatu ditu animazioak. Hiria bera, horrez gain, "pertsonaia" bihurtzen da, antropomorfitzatuta, ahotsa hartzen du, panorama baikor bat irudikatzen, sekula okupaziorik jasan gabea. Leku loretsu bat da Lyd, bizia, oparoa, argia... Nolakoa zatekeen Lyd, dena irauli ez balitz?

Baina galdera hori ez da soilik 1948ko Nakbari lotua. Ekialde Hurbila kolonia ingeles eta frantsesetan banatzeko egin zen 1916ko akordio ezaguna ere ez da sekula existituko, "Asia txikia"-ri zegokiona, Mendebaldean aski ezaguna denez eta horrek historia markatu duenez.

"Unibertso paraleloa" sortu dute, "ezbairik gabe fantasiosoa"; hala kontatu dio Younis zuzendariak *Haaretz* egunkari israeldarrari. Marka da gero Israelgo hedabide horrek halako elkarrizketa luzea eskaini izana. Elkarrizketa argitaratu da estatu sionistak *Haaretz* etsaitzat hartu duela jakinarazi ondotik; gobernuarekin kritikiko delako, egunkaria itotzeko neurri ekonomikoak hartu ditu Israeliek.



HISTORIA KONTATZEKO ARDURA

“Arabiarrak europarrei gailendu ginen istorioa kontatu dugu”, dio Younisek aipaturiko elkarrizketa horretan. Gisa honetako estatu palestinarra eratuko zutela irudikatu dute: arabiar zoriontsuz osaturiko Palestina, beraien eguneroko arazoak dituztenak –mundu osoko herritarrek bezalatsu–, baina juduak ere bizi diren Palestina, berdintasunean oinarritzen den gizarte baketsu eta eder batean.


Hori entzutean, *Haaretz*-eko kazetariak Younisi galdegiten dio ea horrelakoxea den bizi nahiko lukeen egoera ideala. Zera erantzuten dio: “Nahi dudana da israeldarrek ulertzea sionismoa arrazismoa dela, eta uler dezatela ez dela onargarria iraganeko krimenak ez onartzea. Izan ere, Tamer Nafar rap abeslari israeldarrak zure egunkarian duela gutxi idatzi zuen bezalaxe, krimen bat aitortzen ez bada, errepikatu egiten da. Ezin da onartu Avi Dichter [Israelgo Gobernuako Nekazaritza ministroa] bezalako pertsonaiek bigarren Nakba batekin mehatxatzerik. Ergelkeria galanta erakusten du horrek. Ezkertiar sentibera gutxi batzuk kenduta, inork ez du onartzen gertatu zitzaiguna. Eta onartzen badute, ez dute oso ozen esaten. Hori horrela izanik, iraganarekin kritikoak izaten ez bagara, argi dago; berriro egin daiteke. Hori da jendeak ulertzea nahiko nukeena”.

“Judutarrak, eta ez israeldarrak soilik, desinformazioarekin eta era guztietako distortsio historikoekin hazi dira”, dio Younisek, eta fokua egungo belaunaldien –hau da, Nakbatik urrun geratu direnen–

gain jarri du: “Urteak pasatu dira, asko, eta orain Israelen jaioa den gazte batek ez du bere historia ezagutzen, ez duelako lehen eskutik bizi izan eta urrun geratzen zaiolako. Arazo larria da. Jendeak ez du zalantzarik egiten, jendearentzat ez zen inolako sarraskirik izan, baizik eta 1948an arabiarrek beren borondatez joan ziren beraien lurretatik. Jendea horraino iristen da. Ez du gehiago pentsatzen, eta ez du pentsatu nahi”.

Hariari segitzeko eskatzen dio kazetariak, eta Younisek, Israelgo Estatuaren meneko lurretan jaio eta bizi denez, bizipen propioetatik kontatzen dio aditu izan dituela bestelako komentario batzuk; izan ere, omen dago gezur zabaldu bat zeinak dioen XX. mende hasieran juduak joan zirela basamortu lur horietara [Palestinara] “bizi loriatsua” eramatera, bizitzeko baldintza duinik ez zelako han. “Desertua zela dena? Zer desertu?”, dio Younisek: “Nire amona desertu batean bizi zen? Zer txorakeria da hori? Gezurra da, besterik gabe. Hemen jendea bizi izan da mendeetan, bakean”.

Halako iruzkinei entzungor egin gabe, egia mahai gainean jartzeko ardura sentitu du Younisek, eta bereziki Lyd –edo egungo Lod, hala agertzen baita *Haaretz* egunkarian eginiko elkarrizketan– hiriaren iragana kontatzeko: “Filmak erakusten du Palestinan bizitza zegoela 1948a baino lehen, eta Lod, gobernu israeldarrentzat gaur egun zulo ziztrin bat bada ere, Tel Avivetik gertu dagoena eta aireportua besterik ez duena, lehen hiri palestinar garrantzitsua zen. Eta hori deuseztatu egin zen, nahita”. ●



Dokumentaletik entresaka

Filmean ageri da Eissa Fanous, 1948an Lyd hiriak jasandako erasoaren biktimetako bat. Umemokoa zen soldaduak hirian sartu zirenean.

“”

[Argazki zaharrak erakusten] Hau neu naiz. Eta beste hau Sameer Al-Aboudi. Elkarrekin geunden Israelgo armadako soldaduek Dahmash meskitara eraman gintuztenean. Aste bat edo bi pasatuko ziren masakretik. Armadaren ibilgailuetan sartu gintuzten beste haur batzuekin batera [izen batzuk oroitu eta zerrendatu ditu]. Haurrak ginen, umemokoak; neu izango nintzen gazteena. Meskitara eraman gintuzten eta ibilgailutik jaitsi arazi, han askatuko bagintuzten gisara. Baina ibilgailuetatik begira geratzen ziren, armak eskuetan. Agindu ziguten meskitako hilotzak mugiarazteko, ateratzeko kanpora, su eman behar zitzaie-la-eta. (...) Gorpu asko oso deskonposatuta zeuden. Batzuk errekonozitu genituen, baina ez zegoen gorputzaldirik hitz egiteko... Sekulako kiratsa zegoen. Brrrrr. Oraindik ondo go-goan dut. Beldurgarria zen. Ilundura arte aritu ginen horretan, eta etxera itzularazi gintuzten. Eguna argitzearekin batera, atzera ere bueltan eraman. Bi egun eman genituen horretan. Izugarria izan zen. Gorpuak kanpora atera, baztertu eta su ematen zieten.



Hitz gezidunak

UGAZTUN ADARDUN SEI KARRATUKO POLIEDROA	NOLA EDO HALA PARE BAT	ARRANTZA TRESNA			ZUHAITZ MOTA TXERRAMA	LONAZKO ETXOLA PERTSO-NAIAREN ABIZENA	ESTONIAKO HIRIBURUA GEHIENETAN
PELIKULA DAGO					KORU HAUR HIZKERAN, MINA		
	URREA NEKAZARITZAKO TRESNAK		NAFARROAKO MENDIA IKASKETAK EGIN	BAKAILAOA PRESTATZERO ERA GOIZKO KALEJIRAK			
IRRISTATU, LERRATU OINAREN AZPIALDEA					HANDITUZ JOAN XAKE JOKOKO PIEZA		
		GANTZAGIA PERTSO-NAIAREN IZENA				NOREN ATZIZKIA GIZONEZKO IZENA	
LEUNTASUN	LANTZA AZTERTU		LEHEN OIHUKA, GARRASIKA				BASO
					ELEMENTU KIMIKO HAUR HIZKERAN, TXORI		
IRIDIOA ARDIEN BAZKALEKU		ITSASONTZIAREN URPEKO ZATI BURURATU				NEKA, UNA GARAI, DENBORA	
			UKI DAITEKEENA ORDOTS				HIDROGENOA HERRI HIZKERAN, ZER
AKATSAK, NARRIOAK KUKUTZERA BEHARTU				GALDARA AZKEN LETRA			
					OZENKI		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		9		4	8		7	1
			3		1			6
1		2	7	6				3
			6				8	5
				9			6	
8		6				4		
4			9			5	2	
9			4	7		6		8
7	2	8			6	3		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Ehuna ehotzen duena.
2. ... eta arte, bitartean.
3. Koipea.
4. Goru.
5. Urtearen seigarren hil.

EBAZPENAK

1. EHULE
2. HARIK
3. URINA
4. LINAI
5. EKAIN

7	2	8	1	5	6	9	3	4
6	5	3	4	7	2	6	1	8
4	6	1	9	8	3	5	2	7
8	7	6	2	1	5	4	3	9
3	1	5	8	9	4	7	6	2
2	4	6	3	7	1	8	5	
1	4	2	7	6	9	8	5	3
5	8	7	3	2	1	9	4	6
6	3	9	5	4	8	2	7	1

N	E	Z	O	I	Z	V	A	R	V	A	R	U	K	U	K
V	Z	A	R	T	E	R	T	A	X	A	V	A	K	A	V
H	I	G	A	I	O	I	O	I	O	I	O	I	O	I	O
K	I	A	K	I	P	E	R	E	N	E	N	E	N	E	N
O	E	M	E	T	A	S	U	N	E	N	E	N	E	N	E
N	E	N	E	N	E	N	E	N	E	N	E	N	E	N	E
E	N	E	N	E	N	E	N	E	N	E	N	E	N	E	N
I	Z	I	H	V	A	B	V	A	B	V	A	B	V	A	B
L	P	L	P	L	P	L	P	L	P	L	P	L	P	L	P
L	A	V	A	L	A	V	A	L	A	V	A	L	A	V	A
V	A	M	A	V	A	M	A	V	A	M	A	V	A	M	A
T	K	U	N	B	N	B	N	B	N	B	N	B	N	B	N



Harrokeria gurea da, joder!

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA EIDER ITURRIAGA

A retoa betetzen ari dela, antzokiko goiko barandaren atzetik behe-rantz begira, ni baino gazteagorik topatuko ote dudan jolasten eman ditut kontzertua hasi aurreko minutuak. Erregeen kabalgatara aterkiei buelta emanda nola, Delirium Tremens taldearen itzulerara hurbildu da gaurkoan publikoa, eta horixe izan da Chulería, joder! Ezker-raldeko taldeak izan duen joku-zelaia zuzenekoari ekin aurretik.

Duela urtebete kaleratutako *La Urbe* lana irekitzen duen *Hacer Algo* abestia-ekin hasi dira eta kantu bakarrean aurkeztu dute euren burua, lehenengo esalditik bertatik: “*Hacer algo que destruya la moral popular / araño el odio y tu yugular*”. Ostia txarrez kargatutako punk rock zuzen eta gordina dakarte, zirikatzailea, metaforarik eta kontseziorik gabea.

Ahots nagusi karismatiko bat da zuzenekoaren protagonista, oholtza jateko abilezia ikusgarri batekin. Hatz erakusle burlatiarekin bukatu da *No profanación*, eta tonua aldatu da *Geltokia*-n: gordintasuna bai, amorrua ere bai, baina mintik gehiago du zirikatik baino. Maistraki

nahasten eta biltzen baititu bi alderdi horiek *Chulería, joder!*-ek.

Lehenengo hiru abestien ostean geldialdi labur bat, publikoari mezu bat helarazteko: ze aspergarriak zareten. Abesti berri batzuk jo dituzte hurrengo blokean, berriki *live session* formatuan kaleratuta ikusi ahal izan ditugunak (*Siempre me siento regular* eta *Maitia*). Baita Paralisis Permanenteren bertsio bat ere. Eta, tartean, beste mezu bat publikoari: baietz, baietz, oraintxe datozela skinheadak ez diren burusoilak, lasai!

Publikora jeitsi da abeslaria eta hiruzpalau lagunekin lehertu da pogoia *Tus Amigos* kantuan. Berotu da publiko deliriumzalea ere eta txistuak eta txaloak entzuten dira orain. Begirada abeslariarengandik kentzea kosta egiten bada ere, azpimarratu behar Miriamen bateriaren zartakoek, baxu-gitarrek zein koroek osotasunean egiten dutela zuzeneko in-dartsu eta energetiko.

Hirugarren abesti berria den *Juliana* etorri da gero, eta diskoko bi abestirekin bukatu dute: *Infernua* eta *Última hora*. Hala, hasi diren maneran eman dio-

CHULERÍA, JODER!

NOIZ: urtarrilaren 5ean.

NON: Bilboko Kafe Antzokian.


te amaiera, eztanda bortitz batekin eta ohartarazpen batekin: “*Quien no ha visto volar ceniceros no sabe lo que es esto / Que eso sí que engancha / No importa mucho el sitio, porque la mierda viaja*”. Taldeari ere ez zaio askorik axola tokia. Eurenganatu dute gaurko publikoa ere. Kakak bezala, karismak ere bidaiatu egiten baitu, eta aurrean dagoena engantxatu.

Mejillon Tigreren poema batean irakurria da espazio publiko hartzerakoan baimena eta barkamena eskatzea *mierda* bat dela. Eta horretara hezi gaituzte hankartean zakil batekin jaio ez garenok. Badakigu, gainera, haserre eta amorrua adierazteko zilegitasuna eta jendeari burla egitekoa ere gizontasunari esleitu zaizkiola. Hargatik, ez da karisma bakarrik, politika da. Gizonek okupatutako espazioetan botekin lurra indarrez zapaltzea. Haien onespenerako beharrean haiei iseka egiten disfrutatzea. Feministarekin nahieran jolastea. Bortizkeria geureganatzea. Finean, nahi dena nahi den eran egitea. Harroputz, gordin, basati eta gozatsu. Biba gure erregina punkiak, joder! ●



LIBURUA

'Check point'-etatik harago



CCCB

DETAILE XUME BAT
ADANIA SHIBLI
ITZUL.: AITOR BLANCO LEOZ
 IGELA, 2024

AMAIA ALVAREZ URIA

Egunotan, Israelgo soldadu batek bideo-joko batean balego bezala droneak erabilia Palestinako ospitaleak, eskolak, errefuxiatu-eremuak bonbardatzen ditu, Mendebaldean albistegietan telesail bat bailitzan pantailetan *afalosteko kapitulua* ikusten dugun bitartean. Horregatik da hain garrantzitsua beste modu batzuen bidez errealtatearen gordina azaleratzea, genozidioa, inpunitatea eta geopolitikaz kontzientez izateko, besterik ezean. Horretarako aproposa izan daiteke, besteak beste, 2017ko Adania Shiblien *Detaile xume bat*. Aitor Blancoren itzulpenarekin argitaratu berri du Igela argitaletxeak. Literaturak errealtatetik jaso eta literaturak errealtateari ematen diolako.

Bi zati ditu nobela labur honek. Lehen 1949an Palestinako hegoaldea ko-


lonizatzen ari diren kanpamentu bateko ofizial israeldar batez ari da narratzailea. Espedizio batean neska beduino bat aurkituko dute eta preso hartu, bortxatu eta hil egingo dute. Bigarren zatiko protagonista emakume gazte bat da. 25 urte bete dituen egunean, prentsan neska hari buruzko artikulua irakurriko du eta kuriositatea piztuko zaio. Bidaia bat egingo du informazio gehiago lortzeko.

Lehen zatian estiloa deskriptiboa da, gertaerak kontatzen ditu, hirugarren pertsona darabil distantzia bermatzeko. Bigarren zatian ordea, lehen pertsonatik hitz egiten digu narratzaileak, bidaian zehar sentitutako emozioen berri emanez. Armiamak agertzen dira, beldurraren akuilu. Txakurraren zaunka da erresistentzia oihu bakarra. Eguzkiaren bero erreak eta bonbardaketen

ondorengo hautsak zamatuko ditu pertsonaiak.

“Hemengo egoera aspaldi-aspalditik izan da horrelakoa; hain aspalditik, ezen gaur egun jende gutxi gelditzen baita hau guztia baino lehenagoko bizimoduaren detaile txikiez oroitzen dena”. 50 urte pasa dira bigarren kontaktetik hona eta egoera ez da onerako aldatu Palestinan. Hiru belaunaldik pairatu dute okupazioa eta gerra gaur arte, jaioberriak hotzez hiltzen ari dira, haurrek gosea pasatzen dute eta *UN*, *Press* edo *Ambulance* ibilgailuak ere zartatzen dituzte.

Kolonizazio egoeran bizitzea zer den hurbilgotik ezagutzeko aukera dugu orriotan, desertuaren eta itsasoaren arteko *road movie*-an kontalariarekin txikle bat konpartitzeko. ●



MUSIKA

Etorkizuneko izarrak

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

27 urteko ibilbidearen ondoren, Euskal Herriko Gazte Orkestra musikari interesgarrien harrobi handi gisa sendotutako taldea dela esan dezakegu, zalantzarik gabe. Izan ere, Gabon hauetako kontzertubiran gonbidatutako zuzendaria, Iker Sánchez, orkestrako kide ere izan zen.

Urtero harritzen gaituzte udako eta Gabonetako kontzertuekin, eta aurten ere atsegin izan ditugu proposamen desberdin eta oso interesgarri batekin. Kontzeptu eta giro ezberdineko bi obrarekin, berotasun eta xarmaz beteriko errezitaldia lortu zuten.

Lehenik eta behin, obra bitxi bat interpretatu zuten: *Gazteentzako orkestra gida, op. 34*, Benjamin Britten-ena. Eta obra bitxia dela diot, izan ere, izenak dioen bezala, entzule gazteenei orkestra batek nola funtzionatzen duen azaldu nahi die. Henry Purcell konpositore barrokoaren melodia erraz batetik abiatuta, obra *tutti* batekin hasten da, orkestrako instrumentu familia desberdinak erakusten jarraitzeko. Oso didaktikoa.

Baina, horrez gain, obra honek beste bizigarri bat izan zuen: Kepa Errastik, orkestra-familia bakoitzaren aurkezpena egiten zuenak, familia arrunt bateko kide bakoitzak Gabonetako afarietan betetzen duen paperarekin parekatu zituen, umore handiz: koinatu astuna, den-dena dakien lehengusua, eta abar. Ez nago oso ziur emaitza izan ote zen lortu nahi zena, baina komentario horiek sartzeko asmoa, ziurrenik, ona izan zen.

Orkestra sendo eta nahiko seguru aritu zen. Interpretazio ona eta freskoa izan zen.

Lan arin honen ondoren, arratsaldeko plater nagusia iritsi zen: Beethovenen *7. Sinfonia la maiorrean, op.92*.



EGO

EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA. NEGUKO TOPAKETA

ZUZENDARIA: Iker Sánchez.

NARRATZAILEA: Kepa Errasti.

EGITARAUA: Britten eta Beethovenen lanak.

LEKUA: Donostiako Victoria Eugenia antzokia.

EGUNA: urtarrilaren 2a.

Beethovenen sinfonia handiak zenbaki bakoitienak direla esan ohi da. Kasu honetan, zalantzarik gabe, zazpigarren sinfonia hau konpositore honen

lanik onenetakoa dela esan dezakegu. Bere lau mugimenduak benetako gozamina eta erritmo-ariketa gaindiezina dira. Obra honetan orkestraren heldutasun falta agerian geratu zela esan behar dugu. Orkestra gaztekoek mugimendu bakoitzari beren izaera eman zioten, baina agian bigarren mugimendua, *Alegretto*, zerbait laua geratu zen, edo hirugarrena, *Presto*, apur bat itxuragabetua. Hala ere, Iker Sánchezek xarmaz beteriko haloa ematen jakin zuen eta interpretazioa txukun eta fin geratu zen.

Propina gisa, beste urte batzuetako Gabonetako zoramenean ordez, Txai-kovskyren *Intxaur-hauskailua* balleteko *Loreen balsa* eskaini ziguten. Hemen musikarien arteko lotura eta interpretazioaz gozatzeko zuten modua ikusi ahal izan ziren. Zalantzarik gabe, orkestra honetako kide askok zeresan handia emango dute etorkizun hurbilean. ●

Txerribodak, krimen antolatua eta Grande-Marlaska

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Dena sailkatzeko premiak bultzatuta-edo, kontzeptu berri eta kitzikagarriak proposatzen dizkigute hedabideek egunero: bateko *nesting* egiteko ohitura, besteko *nepobaby*-ak nor diren, gaur *mob-wife* bat zer den esplikatzeko dizute eta bihar *ghosting*-aren arris- kuez ohartarazten. Horrelako artikulua bat ikusten dudana aldiro korri egiten dut, gutxi gorabehera Jehovaharen Leku-koak ikusten ditudanean bezala, baina aurreko batean, segur aski ingeles- kutsurik ez zeuzkalako, erori egin nintzen mundu hipermoderno honetako gertakariak esplikatzeko balio duen ber- batzar horietako baten atzaparretan: *Shazhupan*.

Artikuluak Danielen historia kontatzen zuen, 40 urteko suediar bat. Tinder kontu bat ireki eta handik gutxira, *match*, Adele agertu zitzaion, 30


urte inguru, dotorea, hazpegi asiarrak, Suedian omen zegoen bere izeba bisitatzeko. Whatsappez ari ziren handik gutxira: aurrez aurre egoteko planak egiten zituzten bitartean, Adelek kontatu zion kriptotxanponekin diru dezente irabazi zuela, eta beste Whatsapp talde batera gonbidatu zuen, zeinean guru batek inbertsioak egiteko gomendioak ematen zituen; eta Danielek probatzea erabaki: 100 euroxka jarri zituen. Irabaziak ematen zituela ikusita, eta bere bihotzeko Adelek gehiago inbertitzera animatzen zuenez, zeukan diru guztia sartu zuen azkenerako, 40.000 euro. Berandu abisatu zioten iruzurra izan zitekeela. Dirua berreskuratzen saiatu zen, baina ezin. Adele, esan beharrik ez dago, betirako desagertu zen Danielen telefonotik.

Shazhupan-ek txineraz “txerriboda- ren iruzurra” esan nahi du eta, aurre-

ko kasua irakurrita, esplikazio asko- rik ez du behar: engainatu behar den gizajoa korta digital batean gizentzen dute, pentsu gisa maitasun erroman- tikoak erabiliz –ikusten zergatik jarri behar dugun zalantzan?–, San Martin egunean haren sos guztiekin odolkiak egiteko unea iristen den arte. Asuntuak badu ifrentzua ere, antza denez mota horretako iruzurretan lan egiten duten gehienak ere engainatu egiten baitituzte lanpostu onak eskainiz. Amuari kosk egin, talde kriminalen esklabo bihurtu eta nagusiek eskatutako kopuruak lortzen ez baldin badituzte, jipoiak, tratu txarrak eta imajinatu ere egin nahi ez ditudan gauzak jasaten dituzte.

Kontu hauek begiratzen ari nintzen beraz, alegia, krimen antolatua nola engainatzen duen jendea identitate faltsuak erabiliz; nola hondoratzen den psikologikoki horrelako iruzurren bat jasan duena; eta halako batean, pasa den igandean Kataluniako telebista pu- blikoak eman duen dokumental batera iritsi nintzen, Herrialde Katalanetako mugimendu sozialetan infiltratutako polizien kasuak kontatzen dituen. *Modus operandi*-a oso-oso antzekoa iruditu zait: afektuak esplotatzen dira bi kasuetan, helburu ekonomikoekin *shazhupan*-aren kasuan eta helburu politikoen infiltratuenean. Beste aldea da iruzurgile hauek, besteek ez bezala, funtzionario soldata kobratuz lan egin dutela eta, Fernando Grande- Marlaskaren oniritziarekin, kontu korrontetik askoz urrutirago iritsi zirela.

“Ni estatuak bortxatu nau”, dio do- kumentaleko une batean infiltratutako agenteetako batekin harremanak izan zituen norbaitek. Odolkiak egiteko go- goa ematen du horrelako gauzak agin- tzen dituzten urdeekin. ●



ARGIA EGUTEGIA 2025

Aurten ere, egunero efemeride bat.

Historiografia ofizialak albo batera utzi ohi dituen pertsonekin, egungo mundua hobeto ulertzen lagunduko diguten gertaerak errepasatuko ditugu urteurrenak aitzakia hartuta.

“Oroimen historikoa ez da iraganeko nostalgia hutsa, tresna bat da gaurko injustiziaren aurkako borrokan”

Eduardo Galeano



40€ Euskarria

45€

Egutegia +
Pago-egurrezko
euskarria

Egutegia 10€

azoka.argia.eus
(+34) 943 37 15 45

ARGIA 2025

APRILA						
	1	2	3	4	5	6
ITZENDOLA	7	8	9	10	11	12
BEUKIA	14	15	16	17	18	19
ITZANDOLA	21	22	23	24	25	26
ITZARREBERA	28	29	30			


22
ASTEARTEA

1924ko...
Gaurko egun...
1924ko...
Madelair...
Frantziar...
eta nazien aurk...
zuen, 20 urte bete zituen...
berak zuzenduriko erresistentziako...
nazien hornikuntza tren bat geldiarazi zuen...
Parisen, eta granada eta suzuzin erasota 80...
soldadu alemaniar preso hartu zituzten.

AMA LUBHAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Koldo Rabadan Izagirre

Superbotereak



10 urrats
eskola
eraldatze
bidean

Haur guztiek dute
superbotereren bat,
helduok hala ikusi ez arren.
Erabil behar genituzke
eskola-proiektua
diseinatzerakoan.

Liburua **16€**
+ Bidalketa gastuak



Koldo Rabadan egilearekin
hitzaldiak antolatzeko:
solasaldiak@argia.eus